



## LABURPENA

Jarraian irakurgai izango den ikerketa honetan, gaur egun Laudioko gazteek dituzten kirol azturen inguruan ikertu egin da. Horretarako, Laudioko DBHko ikasketak burutzen dabiltzaten ikasleei pasatutako galdetegietatik jasotako emaitzak baliatu izan dira. Emaitza horiek ikertu ondoren, estatu mailako beste hainbat ikerketa baliatuta, datuak konparatu eta jasotako emaitzen zergati hipotetiko desberdinak plazaratzen dira. Bukatzeko, ondorio eta proposamen konkretuak biltzen dira herri mailan sortzen diren akats eta egoera horien aterabide gizara.

## ABSTRACT

In the study that we can read continuously, I have investigated the sport habits of de young people of Laudio nowadays. For this, the results obtained from the surveys carried out among high school students have been used. After analyzing the results, and using different studies of the state, the results have been compared to identify the hypothetical pigs. To finish, different conclusions are gathered and possible solutions are launched to give way to the different problems that occur in the town.

## EDUKIAREN AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1
2. JUSTIFIKAZIOA.....	4
3. MARKO TEORIKOA .....	6
1) ADINA ETA KIROLA.....	8
2) KIROL UZTEA.....	12
3) LEHIA .....	13
4) GENEROA ETA KIROLA.....	14
4. METODOLOGIA .....	19
1) IKERKETAREN HELBURUA.....	19
2) POPULAZIOA.....	19
3) IKERTZE EREMUA .....	19
4) ERREFERENTZIA ALDIA .....	20
5) OINARRIZKO KONTZEPTUAK.....	20
6) SAILKATZE EZAUGARRIAK.....	20
7) GALDETEGIA.....	21
8) LAGINAREN DISEINUA .....	23
9) DATUEN BATZEA ETA TRATAERA .....	24
5. DATUEN ANALISIA .....	25
1) GAZTEEN KIROL IKUSKERA.....	25
2) KIROLA PRAKTIKATZEN DUTEN GAZTEAK.....	31
3) KIROL PRAKTIKATZEN EZ DUTEN GAZTEAK .....	40
4) DENBORA LIBREA .....	45
6. ONDORIOAK.....	47
1) KIROL IKUSKERA.....	47
2) KIROL PRAKTIKATZAILEAK .....	48
3) KIROLA PRAKTIKATZEN EZ DUTEN GAZTEAK .....	50

4) DENBORA LIBREA .....	51
7. PROPOSAMENA.....	52
8. LANAREN MUGAK.....	53
9. ERANSKINAK.....	54
10. ERREFERENTZIAK .....	64

## **IRUDIEN AURKIBIDEA**

<b>Irudia 1</b> Laudioko gazteek kirolarekiko duten ikuskeraren lehenengo zatia .....	26
<b>Irudia 2</b> Laudioko gazteek kirolarekiko duten ikuskeraren bigarren zatia.....	27
<b>Irudia 3</b> Kirolaren alderdi positiboak Laudioko gazteentzat.....	28
<b>irudia 4</b> Kirolaren alderdi negatiboak Laudioko gazteentzat .....	29
<b>Irudia 5</b> Laudioko gazteek kirol praktikarekin duten lotura .....	30
<b>Irudia 6</b> Laudioko gazteek kirol praktikarekin duten lotura, genero ikuspegi batetik. 30	
<b>Irudia 7</b> Laudioko gazteek kirola praktikatzearen zergatiak .....	32
<b>Irudia 8</b> Laudioko gazteek zein maiztasunarekin praktikatzen duten kirola .....	33
<b>Irudia 9</b> Laudioko gazteek urteko zein garaietan praktikatzen duten kirol gehien ....	33
<b>Irudia 10</b> Laudioko gazteek aurrera daramaten kirol praktikaren egitura .....	34
<b>Irudia 11</b> Laudioko gazteek normalean norekin praktikatzen duten kirola .....	35
<b>Irudia 12</b> Laudioko gazteak zenbat urte dituztela hasten diren kirola praktikatzen ..	36
<b>Irudia 13</b> Laudioko gazteak praktikatzen dituzten kirolak.....	38
<b>Irudia 14</b> Laudioko gazteek praktikatzen duten kirolaren lehiaketa egitura.....	39
<b>irudia 15</b> Pertsona sedentarioen tasa genero ikuspegi batetik .....	41
<b>Irudia 16</b> Laudioko gazteen kirol uzte tasa genero ikuspegitik.....	42
<b>Irudia 17</b> Laudioko gazteak kirola uztera bideratu dituen zergatiak genero ikuspegitik.....	44
<b>irudia 18</b> Laudioko gazteen artean kirol modalitateen araberako kirol uzte tasa .....	45
<b>irudia 19</b> Laudioko gazteek denbora librea zertan inbertitzen duten.....	46

# 1. SARRERA

Laudioko gazteen kirol ohiturak aztergai duen ikerketa honetan lehendabizi beharrezkoa da Laudioko herriaren errealitatera egokitzea irakurlea. Laudioko herria Arabako probintziako herri bat da. Gasteiz ondoren Arabako bigarren herrik handiena den hau, Aiaraldeako eskualdean kokatuta dago. Aiaraldea, Bizkaiko eta Arabako herriez osatutako eskualde bat da (Laudio, Amurrio, Aiara, Artziniega eta Okondo). Aspektu ekonomikoei dagokionez, bigarren sektorea da nagusi, lehen sektorea pisu gutxiena duena delarik. Kulturari dagokionez, esan genezake eskualde erdaldun baten aurrean gaudela, 1996ko datuei dagokionez eskualdeko %58a erdalduna zen.

Laudioko herrian zentratu ezker, 2017ko Eustaten datuen arabera 18.399 biztanle aurkitzen dira gaur egun. Adin tarteei dagokionez, 0-19 urte bitartean 3.012, 20-64 10.845 eta 64 urtetik gorako 4.542 biztanle aurkitzen dira. Azpimarragarria da azken urteetan Laudio Euskal Herri osoan jaiotza tasa txikiena izan duen herria izan dela. Euskal herrian 1000 biztanleko 8,8 jaiotzen diren bitartean, Laudion soilik 5,8 biztanle jaiotzen dira 1000 biztanleko.

Kirol instalakuntzei dagokionez, eskualdeko herririk handiena den heinean, kirol praktika nagusienak aurrera eramateko aukera ematen duten instalakuntzak aurkitu ditzakegu. Futbolean aritzeko bi futbol zelai daude herrian bertan. Bata Laudioko lehenengo taldeak erabiltzen duen bitartean bestea, harrobiko taldeek eta emakumezkoen taldeak erabiltzen dute. Baita ere, kontuan hartu behar da, hirugarren belar zelaia dagoela, baina hockeyko talde nagusiak eta bere harrobiak baliatzen dute entrenatzeko eta lehiatzeko.

Instalakuntza publikoekin jarraituz, azpiegitura publiko nagusiei dagokionez, polikiroldegia herriko erdialdean topatu dezakegu. Bertan kirol praktika antolatuei dagokionez, saskibaloia, igeriketa, eskubaloia, areto futbola, taekwondo eta fitness munduarekin lotutako beste hainbat praktika aurrera eramaten dira. Polikiroldegia praktikatzaren diren talde kirolei dagokionez, klub nagusi batzuk aurkitzen dira, harrobia lantzen dutenak eta praktikatzaile asko dituztenak. Baina bestalde, lagun artean sortutako klubak ere topatu ditzakegu liga xumeagotan parte hartzen dutelarik. Igeriketari dagokionez, praktika bideratuak bi ardatz nagusietan banatzen dira. Alde

batetik, lehiaketen mundura bideratuta dagoen taldea eta bestetik, igerian ikasteko udalak bideratutako ikastaroak egongo lirateke.

Aipatzekoa da ere, herrian aurkitzen diren bi frontoi nagusienak herriko periferian aurkitzen direla. Horietako bat esku pilotako klubak kudeatzen du, bestea teniseko taldeak baliatzen duen bitartean beraien entrenamenduak aurrera eramateko.

Bestalde, herriko kultur etxean euskal dantzekin lotutako kirol praktikak aurrera eramaten dira. Horretara beraien praktika bideratzen duten bi talde desberdin topatu ditzakegularik.

Klubek baliatzen dituzten instalakuntza publikoetan azkena, atletismoko taldeak baliatzen diren instalakuntzak izango lirateke. Hauek futboleko lehenengo taldeak baliatzen dituen instalakuntza berdinetan aurkitzen dena.

Instalakuntza pribatuei dagokionez, hots kudeaketa pribatua izateaz aparte etekin ekonomikoa bilatzen duten horiek izango lirateke. Hauek nagusiki, euskal dantzak ez diren dantza moderno eta klasikoak praktikatzera zuzendutako lokalak, gimnasia erritmokora zuzendutakoa, muskulazio eta fitness munduarekin lotutakoak prak eta borroka kirol konkretu batzuk (boxeoa, kickboxing...) burutzeraz zuzendutako lokalak egongo lirateke.

Jabetza pribatu zein publikoaren logika gainditzen duten espazio komunaletan, hots okupatuetan, aurrera eramaten diren praktika eta proiektu konkretuak. Eskaladara zuzendutako boulderra edo ta ongizatera zuzendutako praktika bideratuen aretoa, besteak beste aurkitu ditzakegu.

Laudioko praktikan eragin zuzena duen beste aspektu bat herriaren zein eskualdearen orografia izango litzateke. Laudioko herria mendiz inguratuta egoteak aukera ematen du natur ingurumenean aurrera eramaten diren praktika horiek gauzatzea, mendi ibiltaritza, mendian korrika... besteak beste.

Bukatzeko, mendi ibiltaritza bezalako jarduera fisiko ez antolatuei dagokionez, baita ere azpimarragarria da, ibai ertzean herrien arteko lotura burutzen duen bidegorri sarea, non jendea paseoan, korrika edo bizikletan ibiltzen topatu ditzakegun. Herriko baliabide arkitektonikoei dagokionez, kontuan hartu behar dira parkourra praktikatzeko duten gazte horiek, gaur egun instalakuntza espezializatu bat eraikitzeke eskatzen

dauden arren, beraien praktika gehiena herriko oztopo desberdinak gainditzen igarodute.

Aurreko guztia kontuan hartu beharko dugu, Laudioko herriko gazteen kirol azturen inguruko diagnosia burutu ahal izateko.

## 2. JUSTIFIKAZIOA

Gradu amaierako lana Laudioko gazteen kirol azturen inguruan egin izana nagusiki kirol soziologiarekin lotutako ikerketa bat aurrera eramatearen nahiarekin lotuta egon izan da. Graduan zehar ikasitako eta barneratutako jakintza soziologikoa praktikara eramateko aukera polita iruditzen zitzaidan, nire herriko kirol azturen inguruko analisi bat gauzatzea. Lan honen bidez, herri mailarentzat estrapolagarria den kirol diagnosi bat plazaratu, eta herri mailan sortu daitezkeen kirol eta jarduera fisiko praktika alternatibo partzial horien norabidetze gizara irudikatzen dut honako lan hau. Ez baitago jardun praktikorik aurretik lan teoriko sakon eta zehatz bat gauzatu gabe.

Gai hau hautatu izana, gaur egun gradu amaierako lanek duten izaeraren kritikatik sortutako hausnarketaren emaitza izan da. Hots, gaur egun aurrera eramaten diren lan gehienak behin entregatuta kajoi batean gordetzen dira, berriro ere azalera ateratzen ez direlarik. Nagusiki, aurrera eramaten diren lan horiek errebisio bibliografiko izaera dutenez, eta instituzioetatik ez da apustu sakonak egiten aurrera eramaten diren lan horiek sozializatzerako orduan. Beraz, beharrezkoa ikusten nuen normalean lanek izan oi dituzten muga sozial eta burokratiko horiek gainditzea eta herriarentzat baliagarria izan daitekeen lan teorikoa aurrera eramatea. Aurretik Laudio mailan, gai honen inguruan, existitzen den hutsunea betetzeko nahiarekin.

Hortaz, arriskutsua ikusten nuen abstrakzioan edo ta izaera oso globala zuen lan bat aurrera ematea, lan horren ibilbide praktikoa kolokan jartzeko aukerak handitzen dituelako. Beraz lanaren helburua ez da bakarrik izaera teoriko hutsala duen pergamino bat aurrera eramatea, baizik eta, izaera praktikoagoa izan dezakeen lan baten oinarri teorikoak eta diagnosiak ezartzea. Hoztean, egikarigarria izan daitezkeen borroka konkretuen proposamena gauzatzeko. Herriko egoera material konkretuaren analisitik abiatuta lorgarriak diren helburu partzialen ezarpenerako.

Ikerketan oinarritu ezker, hasierako analisisa izaera orokor baten baitan abiatzen da. Izaera orokorrak kirolak gaur eguneko gizarte globalizatu honetan jokatzeko duen papera ikertzea ahalbideratzen duelako. Beraz, interesgarria da galdetegietatik eratorritako datu horiek baliatzea, gaur egun Espainia edo ta Euskal Herri mailan ematen diren egoera desberdinak ikertzeko. Ondoren izaera orokor hori



baliatuta Laudioko herriko gazteek dituzten kirol azturak ezagutzeko aukerak eman izateko.

Behin oinarrizko zalantzak plazaratuta, beharrezkoa izango litzateke praktika konkretuak proposatzea. Beti ere kontuan izanda, praktika horiek duten eraldatze ahalmena oso mugatua dela. kirola eta jarduera fisikoa gizartearen isla batira.

### 3. MARKO TEORIKOA

Lurralde edo ta herri baten diagnosi konkretu bat aurrera eramaterako orduan beharrezkoa da azterketa modu sakonean gauzatzea. Laudioko gazteen kirol azturen inguruan ikertzen gabiltzan honetan, beharrezkoa da kirola zein jarduera fisikoa inguratzen duten eragile edo faktore guztien analisi sakon bat egitea. Ondoren horien arteko loturak aztertuz, gaur eguneko kirol ereduaren baitan gazte bakoitzak hartzen dituen erabakien inguruan hausnartu ahal izateko eta erabaki horien zergatiak zehaztu ahal izateko. Zentzu horretan, jarraian datozen faktore hauek modu xehatuan aztertu ditut eta ikuskera ideologiko ezberdinak baliaturik Laudioko errealitatea aztertzeko aukera emango duen oinarri teorikoa ezarri.

Beraz, kirola terminoa baliatzen dugunean izaera polisemikoa duen hitz batez ari gara. Kirol hitzak, sorrera ezberdinak izan ditu baina beti denbora librearekin eta ludikotasunarekin lotuta egon izan da. Askotan jokoaren sinonimo bezala adierazten zaigularik. Baina, zerk bereizten du kirola beste praktika sozialetatik? Oinarria nagusiki, epikaren ezaugarrian edo ta ezarrita eta sozializatuta dauden arauak dira kirolarekin identifikatzeko aukera ematen digutena (Néstor Hernández eta Carlos Carballo, 2002).

Terminoaren anbigutasun horren baitan, bi kontzeptu nagusi bereizteko aukera ematen digu, jarduera eta praktika. Kontzeptuetan lehenak, behagarria den mugimenduaren portaerari deritzo. Bigarrenak ordea, norbanakoaren subjektibotasunetik abiatzen da, ekintza horri ematen dioten esanahiaren arabera (Meinel, k. eta Schnabel, g. ,1989). Hau da, jarduera fisikoaz mintzo garenean praktika motorren izaera objektiboa deritzo. Kirol praktika ordea, izaera objektibo horretarik eratorritako egikaritze abstraktuago bati egiten dio erreferentzia. Non faktore eta eragile desberdinen arteko elkar eragitearen ondorio da.

Baina, kirola ikuskera sozial edo ta politiko batetik analizatu behar da. Esperientzia kolektibo oro, giza esanahi batekiko erlatiboa dena, ikuskera sozialean oinarritu beharko litzateke. Politikoa aldiz, giza esperientzia orokorraren erlazio zuzena delako, botere forma pean. Hortaz, norbanakoaren nahitasuna, giza baloreak eraikiak dituenak, praktikaren esferari zentzua ematen dio (Néstor Hernández eta Carlos Carballo, 2002).

Kirola bera, ikuskera sozial batetik ikertu behar dela adierazten denean, egikaritze sozialaren baitan, kirolak balore konkretu batzuk erreproduzitzen eta sozializatzen dituela aditzera ematen da. Bide horretatik, aurretik gizarteratutako beste hainbat jarrera eta ohitura barneratzen dituelarik.

Hortaz, kirol praktika kodigo moral bat igorri egiten du, gaur eguneko gizarte eredu konplexua indartzen duten balore multzo bat, alegia. Sozializazioa, prozesu jarraitu bat, esperientziek eta bizipenek norbanakoaren bizitzaren joanean eragiten dute (Patriksson,1996).

Espazio soziala, norbanakoek rolak plazaratzen dituen espazioa, antolaketa sozial ezberdinak aurrera eramaten dituen bizi estiloari deritzo. Integraturik aurkitzen den interakzio sozialen eskema, alegia. Espazio soziala parte hartzen duten agenteen kapital ekonomikoa eta kulturalaren arabera bereiztu egiten da (Bourdieu, 1997).

Bourdieuk 1997.urtean adierazi bezala kirol sozializazioaren gauzatzea nagusiki etxekoen artean ematen da. Tradizionalki, sozializazio horren gauzatzea etxeko aitari egokitu izan zaio. Tradizionalki kirolak barne bildu dituen baloreen ondorioz (Indarra, adorea, gizontasuna...). Hortaz, ez da arraroa emakumezkoak kirol modernoaren baitan antolatzen ari diren praktika estetiko horietan abangoardia izatea, lehia kirolek aldenduz (Ferrando eta kol, 1998).

Hezkuntza, kirol kulturaren barneratzearen bigarren eragile nagusia da. Jarrera patroi konkretu batzuk barneratzeaz aparte, interakzio sare sinboliko konplexu batzuk baliaturik kirol praktikarekiko harreman positiboak saretzen ditu. Kontuan hartu behar da ez garela prozesu xume batez ari. Alde batetik, guraso askorentzat ikaskuntza zentroetan aurrera eramaten diren kirol praktikak kalitatearen adierazgarri direlako eta bestetik, beharrezko eskolaratzeari esker, gazte guztiek aukera daukate kirol praktika aurrera eramateko (Ferrando eta kol, 1998).

Bestalde, komunikabideek prozesu sozializatzailean jokatzeko duten papera, hedabide tradizionalak edo ta modernoak izan da ere kontuan hartu beharreko aspektua da. Hala izanik, Espainia mailan gehien kontsumitzen den prentsa, idatzizkoa edo ta telebistan izan, kirolarekin lotutakoa da (Ferrando eta kol, 1998).

Marko sozializatzailea behin aztertua beharrezkoa da kirol praktikan eragiten duten esfera eta faktore desberdinak baita ere mahai gaineratzea.. Jarraian banaka azalduko diren hauek nagusienak direlarik.

## 1) ADINA ETA KIROLA

Lehendabizi gazteei zuzendutako ikerketa bati erreparatzen diogunez beharrezkoa da kilora adin perspektiba batetik analizatzea. Pertsonen bizitza zatitzen dituen garaien bitartez egitean oinarritzen da: haurtzarora, gaztarora, heldutasuna eta zahartzarora. Haurtzarora, derrigorrezko hezkuntza urteak barne biltzen ditu. Garai honetan gizabanako bakoitzak gizartean bizitzen ikasten du, gizartekotze prozesuaren baitan. Denboraren joanean norbanako bakoitzak gizarteratutako balore, arau eta ohiturak barneratzen ditu. Aipatutako aspektu nagusi hauek lehen mailako gizartekotzearen parte dira. Nahiz eta, eskolaratzea bigarren mailako sozializazioaren hasierako parte izan eta beste eragile sozializatzaileekin kontaktuan egon (Barata eta Mosquera, 1998)

Adina ez da aztertzen ikuspegi kronologizista batetik, baizik eta bizitzaren etapa bakoitzean norbanakoak bizi dituen harreman sozialetatik sortzen diren rol eta betekizunen azterketan oinarritzen da. Gizarte bakoitzaren baitan adinarekin lotuta dauden estereotipo desberdinak konfiguratu dira, pertsona bakoitzaren estatuz eta rol konkretuak zehazten dituelarik.

Hortaz, analisiaren oinarria sozializazio prozesuaren baitan ematen diren etapa konkretu bakoitzean, pertsona bakoitzak bete beharreko ezaugarri konkretuetan, zein etapa bakoitzean ematen diren egoera heterogeneoetan oinarritzen da.

Haurtzarora, norbanakoak gizartean bizitzen ikasten du. Jaiotzatik marko sozializatzailearen bidez (eskola eta familia nagusiki) ume bakoitzak gizarteratuta dauden arau, norma eta ohitura desberdinak barneratzen hasten da. Kirolari dagokionez, ingurugiro egoki batetan gauzatzen denean, osasun zein nutrizio ohitura egokiak barneratzeko aukera ematen dute. Horregatik da hain garrantzitsua txikitatik kirol zein jarduera fisiko praktika ezberdinak aurrera eramatea, besteak beste (Barata eta Mosquera, 1998)

Bide berdinetik, gizartekotze prozesuan hezkuntzak paper oso garrantzitsua jokatzeko du kirol praktikaren hurbilketa. Gorputz hezkuntzaren bidez gazte guztietara heltzeko aukera dago, beharrezko kurrikulumari esker. Kasu honetan, eskola orduetan burutzen dituzten jarduerak fisikoak baliatuko liratekeelarik. Gorputz hezkuntzan lehiakorragoa edo ludikoagoa izan da ere, paper garrantzitsua jokatzeko du ohitura osasungarriaren, joko garbiaren edo ta haur guztien jardun motor aktiboaren apologian.

Pertsona aktibo edo sedentario terminotan mintzatzen garenean argi izan behar dugu zeri egiten zaion erreferentzia. Historiaren joanean emandako eraldaketa sozialek, ikerketa desberdinetatik ateratako ondorioek, edo ta, gizarte talde desberdinen jarduerak fisikoarekiko izan duten beharren ondorioz “pertsona sendenario” eta “pertsona aktiboaren” terminoak eraldatuak izan dira historikoki. 2010. urtean OMSek, Osasunaren Munduko Erakundeak, adierazi bezala osasunean modu positiboan eragin ahal izateko gazteek egunero 60 minutuko jarduerak fisiko zein kirol praktika bat aurrera eramatea beharrezkoa dute. Intentsitatea neurritzeko edo kementsua izanda ere. Beraz, gazteen artean edozein motatako ikerketa edo jarduna aurrera eramaterako orduan kontuan hartu beharreko sailkapena izan beharko litzateke.

CSDk 2011. urtean plazaratutako datuen arabera haurren %54a inguru pertsona aktibo edo erdi aktiboak dira. Pertsona sedentarioei dagokionez, nesken %46a eta gizonezkoen %24a direlarik. Nagusiki kirola praktikatzearen zergatiak, gustuko izateagatik %53 batean eta forman egoteko %17a dira.

Kirol praktikara bultzatzen dituen eragile sozializatzailerik nagusienak familia (%42) eta lagunak (%16). Hots, gurasoek kirol praktika burutzen duten kasu horietan seme alabak kirola burutzeko aukerak handitzen dira, gehien bat emakumezkoen kasuan. Hala ere, gazteriaren %35 baten arabera, erabaki propioaren ondorioz kirola egiten dutela adierazten dute. Baina, kontuan izan behar dugu norbanakoaren erabakitzea sozialki eraikia dagoela ingurumen familiarra zein hezkuntzakoaren arabera. Praktikatzearen zergatiari dagokionez, ume gehienek gustuko duten praktika bat delako (%53) burutzen dutela adierazten dute. Ehuneko txikiago batean forma egokia bilatzeko (%17) egiten dutela azaltzen dute. Bi aspektu hauek modu homogeneoan banatzen dira, genero ikuskera kontuan hartzen baldin badugu (CSD, 2011).

Bestalde, kirola praktikatzen ez duten ume gehienak denbora faltaren (%25), gustuko ez izatearen (%20) eta ondo ez ematearen (%11) ondorio dela adierazten dute. Umeek adierazten dituzten arrazoi gehienak barne mailako ezaugarritzat hartu daitezke. Hala ere, urteak aurrera joan ahala eta beraien barne autonomia handitzen den heinean, kirola ez praktikatzearen barne zergatiak oraindik ere gehiago areagotzen dira, erabakitze ahalmena handitzen delaren zeinale. Horren adibide nagusiena, denbora faltaren argudioarekin lotuta dago. 6-7 urteko gazteen %10 batek adierazten duen bitartean 16-18 urte bitarteko gazteen %32 batek bat egiten du denbora faltaren adierazpenarekin (Martins, 2005).

Honetaz aparte, gazteen artean aurrera eramaten diren praktika hegemoniko nagusienak modu ez antolatuan futbolera jokatu (%18), bizikletarekin atera (%18) eta korrika egitera ateratzea (%12) dira. Futbolean jokatzeari dagokionez, mutilen eta nesken artean 14 puntuko aldea dago praktikari dagokionez. Praktika antolatuei dagokionez, bost kirol nagusitzen dira besteen aurrean, futbola (%22), saskibaloia (%9), dantzak (%9), igeriketa (%8) eta areto futbola (%7). Honetan, genero rol estereotipatuak erreproduzitzen direlarik. Gizonezkoek futbola praktikatzen dute %34 batean eta emakumezkoek dantzak (%22). Horren adibidea da, inkestatuen %60 batek uste duela emakumezkoentzako eta gizonezkoentzako egokiak diren kirolak, desberdinak direla.

Haurtzaroaren amaieran, bigarren garai batera igarotzen gara, gaztaro bezala ezagutzen dena. Etapa hau haurtzaroaren eta heldutasunaren arteko trantsizio etapa bezala definitzen da. Bi ezaugarri nagusiren pean ematen da. Alde batetik, bilakaera soziala, non, nerabezaro fisikoan barreiatzetik emantzipazio familiareraino doa. Bestalde, hezitze prozesuaren bukaeran hasi eta lan munduaren hasiera amaiera duena, lan mundura salto deritzona (Casal eta kol, 2011).

Heldutasun trantsizio honetan gazteak ziurgabetasun egoera konstante baten aurrean aurkitzen dira, beraien bizitzan eragina izango duten erabakiak hartu beharko dituztelarik. Hartzen diren erabakiak bizi esperientzien (maitasuna, aisia, profesionalak....) arabera egikaritzen dira (Barata eta Mosquera, 1998). Aipatutako egoera sozio afektibo hauek eragin zuzena dute gazteen kirol praktikan zein aisialdi eremuan. Beraz, beharrezkoa da aisialdia kontzeptua bera mahai gaineratzea. Gaur eguneko aisialdi eredia aztergai bilakatuz baina ikuspegi historizista alboratu gabe.

Aisialdia, kontzeptualizazio modernoaren baitan, atsedean egoerarekin identifikatu egiten da, oporrekin edo ta ikuskizun eta dibertsioarekin. Hala ere, ikuskera historikoa, aisia lana amaitutakoan geratzen den denbora libre bezala definitu izan da (Cabeza, 2011). Gaur egun ezagutzen dugun aisialdi eredu modernoa sistemaren garapen orokorrarekin paraleloki garatu da. Horretarako beharrezkoa da, azken mende erdian, hots, industria iraultzatik gaur egunera, denbora libreak izan duen bilakaera eta eboluzioa aztertzea. Aisialdia eta industrializazioaren paradigmaren adierazle nagusia lan denboraren (denbora produktiboa) eta denbora librearen arteko dikotomia izan da. Denbora librearen aurkakoa edo antitesia izateaz gain, haren antidotoa bailitzan funtzionatu izan du. Banaketa hori norbanakoaren errealitateari erreparatu diolarik eta ez produkzio mekanismo orokorrari. Hala ere, biak zeharka lotuta aurkitzen dira, aisiak kontsumo gizartearen atal garrantzitsuenetako bat bilakatuz.

Industrializazioa fenomenoaren baitan, kontsumo aisialdiaren ezarpena ez zen unean bertan eman. Industrializazio prozesuaren hasierako akumulazio fasean langileek 14-16 orduko turnoak burutzen zituzten, aisialdirako denborarik ez zutelarik. Hala ere, gaur eguneraino emandako teknifikazio eta arrazionalizazioari esker, lan orduen beherakada bat izan da, produkzioan eragin gabe. Gaur egun lanik gabeko orduak, lanean segitu ahal izateko indar berreskurapenaren astia izaten jarraitzen du. Baina, egituraketa abstraktuago baten pean, sistema beraren lan erreproduktiboa gauzatzeko oinarri materialak ezartzen baititu. Mende hasieran kontsumo aisialdiak izandako goranzko bilakaera, haustura jasan zuen, krisiaren nabarmenentzearekin. "Denbora guztia libre duen pertsona langabetu" baten paradoxa gauzatu, pertsona hauek ez baitute ez aisialdia ezta denbora libre izateko aukerarik. Bizitzaren erreproduktiorako beharrezkoak bilakatu izan diren harreman mekanismoak balioaren logikan oinarritzen baitira, diruan alegia (Trilla, 2011).

Hala ere, esan genezake aisialdiaren asaldura garai batean bizi garela. Aisialdiaren transformazio konstantean, emantzipazio tresna bilakatu ordez, harreman sistema ezarriaren erreproduktio hutsa izaten jarraitzen du. Aisialdi kontemporaneoak, pautak eta balore kultural berriak islatzen ditu, esperientzia subjektibo baten baitan, libre eta pertsonala bailitzan. Baina, zuzenki eraginda aurkitzen da sistema ekonomiko-politikoa, burokrazia eta arrazionalizazioa, komunikabideak,

desberdintasun sozialak edo ta antolaketa modernoan arte hartzen duen beste edozein elementu estrukturalagatik (Cabeza,2011).

2014.urtean INJUVEk plazaratutako ikerketa baten arabera, gazteen aisialdiaren seigarren aspektu garrantzitsuena kirola da, familiarekin eta lagunekin egon, interneten nabigatu, sare sozialetan ibili, telebista ikusi eta musika entzutearen ostean. Gainera kontuan izan behar da aipatutako aspektu hauek lotuta joan daitezkeela kirol praktika batekin, analisisetan jasotzen diren emaitzak baino garrantzi handiagoa izango duelarik. Kontuan izan behar da, kirol praktikaren datu handienak, astean behineko praktikari erreparatzen baldin badiogu, 15-19 urte bitarteko gazteen artean ematen da %82 batekin. 65 urtetik gorako pertsonen %32 batek soilik praktikatzen duela ikusita, esan dezakegu, gazteak nagusiak baino askoz ere kirolariagoak direla (Informe juventud en España, 2016).

Talde kirol antolatuez, hots, futbola, areto futbola, saskibaloia eta bestalde muskulazio munduari lotutako kirolez ari garenean, gazteek askoz ere gehiago praktikatzen dute. Hala ere, gaur egun praktikatzen diren gimnasia lasaiak edo ta musikarekin lagundutakoak kontuan hartzen baldin baditugu aldea ez da hain nabaria.

Gaztaroaren analisi egoki bat egiteko eta parte hartzen duten faktore guztiak modu egokian ulertzeko beharrezkoa da gaztaroa trantsizio perspektiba batetik analizatzea. Norbanakoaren kirol bilakaera ebolutibo horretan diferentzia markatzen duen faktore nagusienetako bat kirola uztea da. Ikerketa desberdinak oinarri hartuta, ikusi daiteke neska zein mutilak nagusitzen doazen heinean kirol uzten joaten direla modu progresibo batean, Espainiako estatistiken urtekarian ikusi daitekeen moduan (CDS, 2011 ).

## 2) KIROL UZTEA

Kirol uztea gazteek beraien kirol praktikaren bizitza ebolutiboan bizi duten errealitatearen parte garrantzitsu bat da. Beraz, beharrezkoa da modu independente batean ikertzea eta errealitatean oinarriturik, horren zergatia bilatzea. Hortaz, analisia modu zehatzago batean egiteko beharra ikusten da. Hots, azaleko ikerketek fenomenoaren ikuskera partzial bat soilik identifikatzeko aukera ematen dute, horren ondorioz informazio asko bidean galtzen delarik. Hortaz, kirol uztea bereiztea



beharrezkotzat jotzen da. Analisisetan kontuan hartu beharreko faktoreak kirol uzte tenporala, jarduera aldaketa eta behin behineko uztea izan beharko litzateke. 2010an burututako galdetegietan kirola praktikatzera bueltatuko ote ziren galderari, seguraski bueltatuko zirela 15-17 urte bitarteko gazteen %25 batek, 18-24 urte bitarteko %24,6k eta %22,3 25-34 bitartekoetan. Hortaz, datu hauek kontuan hartu ezkerro kirol uzte terminoarekin definitu ordez, esan genezake kirola gazteen artean oso modu ezegonkorrean ematen dela, heldutasun trantsizioarekin zuzenki lotuta dagoena (CIS, 2010).

Hala ere, gazteen arteko kirol praktikaren degradazioa, praktikaren fluktuazio bat bailitzan bezala. Argi dago praktikaren beherakada substantzial bat ematen dela hainbat faktoreren ondorioz. Kirol uztearen faktore garrantzitsuenetako bat interes kontrajarrien arteko talkaren ondorio dira. Hots, haurtzaroan gazteak aldi berdinean kirol desberdinak praktikatzeko aukera dute edo ta aisialdiko beste praktika desberdinak burutzeko aukera. Bigarren hezkuntza aurrera doan heinean gazteek dituzten exigentziak handitzen doaz, eskola orduetako betebeharrak aurrera eramateko denbora gehiago behar dutelarik. Honen ondorioz, gazteak askotan behartuak ikusten dira praktiketako bat hautatzera, gehienetan kirola izaten delarik alde batera uzten dena (Barata eta Mosquera, 2011).

### 3) LEHIA

Aditzera ematen den beste faktore bat kirol, lehiaren hanpadurari deritzo. Emaizagatik zabaldua dagoen obsesioak, irabaztearen aldeko ekiteak edota galtzen denean gizarteratzen diren kritikak... umeei transmititzen zaie bizitzako esfera desberdinetatik, modu zuzenean beraien garapen psikologikoan eragiten dutelarik. Ikuskera honen hurbileko eragileak, gurasoak, lehiaketan antolatzaileak, entrenatzaileak, kirol instituzio nagusienak.... dira. Beti ere kontuan hartu behar delarik, hauek ere, oraindik ere espektro nagusiago baten menpe aurkitzen direla, hots, sistema bera.

Kirol praktiken egituratzeari erreparatzen baldin badiogu, emaitza da faktorerik eta garrantzitsuena. Lehiaketak nagusiki sailkapen formatuarekin diseinatzen direlarik.

Parte hartzaileekin sortutako modelo parte hartzaileagoak alboratzen dira liga formatuko txapelketei garrantzi handiagoa emanaz.

Motibazioaren teoriaren kasuan, Robertsek (1993) eta Weiss eta Chaumetonek (1992) kirolariak beraien motibazioa bi emaitza edo helburu motara bideratu zezaketela planteatu zuten, emaitzen edo egin beharren helmuga deritzonak. Emaitzari bideratzen dutenek sailkapen ikuskera batetik analizatzen dituzte helburuak irabazi edo galtzearen dikotomian oinarrituz. Egin beharretan oinarritzen direnak, ordea, barne mailako konparaketan oinarrituz burutzen dute autokritika, besteek lortutakoa analisietatik alboratuz.

Kirol lehiari dagokionez, adinaren arabera fluktuazio desberdinak ematen dira. Datuei dagokionez, ez da inflekzio puntu adierazgarririk topatu. Hala ere, 14-15 urtetatik aurrera beherakada ematen dela baieztatu daiteke. Hala ere, ez da kirola praktikatzaren faktore nagusienetako bat, soilik %7 batek adierazten baitu honen beharra kirol praktika aurrera eraman ahal izateko (Fraile eta Diego, 2006).

#### 4) GENEROA ETA KIROLA

Generoa kirolaren bidez burutzen den sozializazioaren aldagai garrantzitsuenetako bat da, kirol praktiken inguruan gauzatzen diren harreman sozialak zein kirol sistemaren egituratze formetan eragiten duelarik.

Hortaz beharrezkoa da hasierako definizio egokietatik abiatzea abstrakzio maila handiago batean burutuko den analisi bat gauzatu aurretik. Beraz, sexu eta genero arteko aldea argi utzi behar da. Sexua, pertsona bakoitzak duen ezaugarri biologikoei ematen dio erantzuna. Jaiotzez ezarri zaigun ezaugarri biologiko hauek, gizarte bakoitzean modu desberdinenean interpretatzen dira. Ezaugarri biologikoen gain, estereotipo, balore, jardute modu desberdinak eraikitzen dira sexu bakoitzaren pean. Hots, gizonezkoztat hartzen diren jarrerak eta jardunak maskulinoztat hartzen dira, eta aldiz, emakumezkoztat hartzen diren jarduerak eta jardunak femeninoztat hartzen dira. Hortaz, eraikuntza sozial honen pean ematen diren genero eraikuntzak gizarte eta kultura bakoitzean modu desberdinean egikaritzen dira. Denboran zehar modu dinamikoan jarduten dutelarik. Garai batean maskulinoztat hartu zitezkeen kirol

praktika batzuk gaur egun femeninotzat hartzeko aukera dute (Montse, Susanna eta Anna, 1998).

Eraikuntza soziala giza irudimenean dauden genero estereotipoak definitzaile modura jarduten du, ikuskera horren sozializazioaren bidez etiketa sozialak eraikitzen direlarik. Hots, pertsona baten ezaugarri konkretu horren arabera gizarteak sailkatu egiten du, eraikitako talde desberdinetan sartuz. Hau da, pertsona horri ezarri zaion, klase, genero, adin, lan edo ta kirol praktika motaren arabera.

Espainiar gizarteari dagokionez, gaur egungo gizarte gehienetan bezala, genero ezaugarri hegemonikoak sistema kapitalistan oinarritzen da izaera patriarkala duena (Montse, Susanna, Anna, 1998).

Aurreko ereduarekin jarraiki, idazle hauek hiru faktore nagusiren pean abstraitzen dute analisirako ikuskera: disparekotasuna, diferentzia eta anizkotasuna. Modu horretan gaur egungo gizartearen analisiak dituen konplexutasunei aterabidea emateko.

Kontzeptu hirukoitz honen ulerkeran gizarteratuta dauden balore eta arauen sozializazioaren analisia beharrezkoa bilakatzen da. Hots, kirol sisteman aldaketak eman arren, gaur egun oraindik ere maskulinotzat ematen diren balore eta arau desberdinen erreprodukzioa dakar (lehia, hoberena izatea, indarra, potentzia, arrakasta izatea...), emakume asko kirolagatik erakarriak ez izatea dakarrelarik. Balore eta arau estereotipatuez aparte, denboraren banaketa lan erreproduktibo zein produktiboari dagokionez, eragin zuzena dauka emakumezkoen kirol gizarteratze lanean. Gehien bat etxetik kanpo lan egiten duten edo ta bere seme alabak zaindu behar dituzten emakumezkoak direlarik, kirol praktikatik hurrunen aurkitzen den esferako kide.

Guzti honetaz gain, Jennifer Hargreaves 1993ko analisisiek genero ikuskera eta kirol sistema modernoaren arteko lotura abstrakzio maila handiago batera eraman zuen, bere analisia giza estereotipo horietatik haratago, hots ikuspegi funtzionalista hauek gaindituz, sistema kapitalistaren eredu produktiboa kirol modernoaren ezaugarrietara estrapolatu zuen. "Aurreraka jotzeko beharrezkoa da kirol femeninoaren eta teoria askatzaileen arteko analisiaren esplorazio egoki bat egitea. Gatazkaren nukleo, pertsonak modu askean burutu nahi duten kirol eta aisialdia

gauzatzeko aukera duten edota aurre estipulatuta dauden arau batzuen baitan hartzen dituzte erabakiak” (Jennifer Hargreaves, 1993).

Hergreavesen analisisetatik hegemonizitate printzipioa mahai gaineratzen du, kirol eta aisialdiaren inguruko analisisetan. Gramscik bataiatutako hegemonia kontzeptua baliatu izan da, aisialdian zein kirolean ematen den askatasun eta derrigortze dikotomiaren analisisirako. Hegemonia, kontrol limurtzailearen forma hartzen du, botere egiturak sostengatzen dituen balore eta sinesmenen produkzio zein mantenua beharrezkoa dute, harreman sozialen bidez egikaritzen delarik.

Hortaz, beharrezkoa da hegemonia kontzeptua, kirol eta aisialdiaren lidergo eta dominazio maskulinoaren azalpenean txertatzea, sistema kapitalistaren baitan ematen diren genero interakzioen ezaugarri espezifikoaren azalpenak gauzatzeko. Gizartean eraikitako interes maskulinoak dira nagusi gaur egungo kirol eta aisialdi ereduaren. Beste gizarte esparruekin konparatu ezkerre, aldaketa hegemonikora modu sendoagoan eutsi izan diolarik.

Kirolaren printzipio hegemonikoa ezin daiteke azaldu sistemaren baitan ezarri dauden ezaugarri sozial zein ekonomikoei ikuskera historizista batetik analizatu gabe. Hots, lotura zuzena aurkitu dezakegu historian, errenta, botere kulturala eta genero harremanek jokatutako papera. Emakumezkoa gizonezkoaren gain ekonomikoki subordinatua egon da, aisialdi zein kirol praktikarako dituen aukerak mugatuak izan dituelarik. Familia nuklearra, unitate ekonomiko gizona ulertu behar dugu, non gizonezkoa sarbide ekonomiko nagusia burutzen duen, bere lan indarraren salmentarekin. Lan indarraren salmentaren bidez bereganatutako kapitala, familiaren lan erreproduktiborako baliatu egiten da, familiak zein etxeak dituen beharren eta ase asebetetzea gauzatzeko, alegia (Jennifer Hargreaves, 1993)..

Hortaz, sozialki gizonezkoa aisialdiko jarduna izateko aukera irabazi egin du. Sistemak horrela izatea beharrezkoa duelako. Aisialdia, burutu beharreko lan produktibo horren areagotzeari zuzendua dago. Bien bitartean, kirol praktikak lan produktibo eraginkor bat gauzatzeko beharrezkoa den gorputz perfektuak eraikitzea bideratu izan da. Emakumezkoa ordez, espazio pribatua burutu beharreko lan erreproduktiboari lotuta egon dira, aisialdira bideratutako denbora murriztago izan duelarik. Emakumezkoaren lan etxekotu ez soldatapeko duna, gizonezkoak esfera

produktiboan burutzen duen lan soldatapekoari lotua dago. Etorkizuneko langileriaren erreprodukzioa gauzatu dezaten.

Hala ere, argi izan behar da emakumezko askok, gehien bat Bigarren Gerrate Mundialetik aurrera esfera produktibora egin zutela salto. Hortaz, aisialdia esparruari dagokionez, emakumezko asko egoera kontraesankorreetan aurkitzen dira. Alde batetik, burutzen duten lan publikoa ahalmen ekonomiko handiago bat izateko aukera ematen dielako. Baina gauzatzen dituzten lanak normalean eskubide murriztagoak izaten dituzte, ahalmen ekonomikoari dagokionez. Produkzio beherakada ematen denean, lehenengoak izaten direlarik lan postu horietatik botatzen. Hori gutxi balitz, kasu gehienetan esfera pribatua burutu beharreko lanak modu eskusiboan gauzatzen dituzte, aisialdirako duten denbora oraindik ere gehiago murriztuaraziz. Beraz, historikoki genero bakoitzari inposatu zaion lan mota edo ta esfera, aisialdi zein kirol praktikan modu zuzenean eragina izan du. Gizonezkoek esfera produktiboaren erreprodukziorako beharrezkoa zuten lan indarraren erregenerazioa gauzatzeko tresna historikoa aisialdia eta kirola izan baitira (Jennifer Hargreaves, 1993).

Etxekotuaren ideologia, emakumezkoak soldatapeko lanetik aldentuta mantentzen dituen, naturalaren eta jasotakoaren estereotipo maskulino zein femeninoen produkzioen emaitza dira. Maskulinitatearen dominazio irudiek emakumezkoek kirolarekiko duten ikuskeran eragin bikoitza dute. Bera, kirola diskriminazio sexualaren iturri garrantzitsu bat da, botere maskulinoaren pean. Kirolean zein aisialdian ematen diren eraikuntza identitarioak ez dira modu bakartuan ematen, bizitzaren beste esparru ideologiko desberdinekin batera ematen da. Eskola, familia, komunikabideak, lan esparruak... Hots, emakumezko zein gizonezkoen artean kirol esparruan ematen diren artikulazio sinbolikoak eragin zuzena dute pertsona bakoitza burutzen duen kirol praktika motan ( Jennifer Hargreaves , 1993). Izan ere, giza talde desberdinak kirol edo ta jarduera fisiko molde desberdinekin identifikatzen direnean, lortzen diren emaitzak oso heterogeneoak izaten dira, emakumezko zein gizonezkoek oso modu baldintzatuan jarduten dutelarik (Elida Alfaro, 2008).

Analisisa datuen konkreziora eramanda, topatzen dugun alderik eta esanguratsuen kirol praktikaren baitan elkar harremantze formei dagokio. Jardule bakoitzak kirol praktika aurrera eramatearen zergatiak eta kirol praktikari ematen dioten garrantzi graduaren arabera bereiztu egiten dira bi genero hegemonikoen

artean. Normalean emakumezkoak gizonezkoekin konparatu ezkerro kirol mundua inguratzen duen faktore guztietatik aldenduagoak aurkitzen dira. Garciak Ferrandok 2015. urtean "Ideal democrático y bienestar personal" liburuan plazaratu bezala 0-10eko puntuazio maila batean gizonezkoak 7,1 puntutan eta emakumezkoetan 5,8 puntutan aurkitzen da kirolarekiko interesa modu orokor batean aztertu ezkerro.

Kirol zein jarduera fisiko praktikari dagokionez, Espainiako datu orokorreari erreparatzen baldin badiogu Espainiar biztanleriaren %53,5 batek azken urtean kirol praktika baten bat aurrera eraman izan du, emakumezkoen kasuan %47,5 batek (Encuesta de hábitos deportivos, 2015). Bestalde, kirola edo ta jarduera fisikoa praktikatzearen zergatiei erreparatzekotan genero bereizketaren kirol paradigma aditzera ateratzen da. Gizonezkoek kirol praktika, jardute soilagatik eta ondo pasatzeko egiten duten bitartean, emakumezkoak kirol jarduna burutzeagatik egin arren nagusiki, bigarren aspektu bezala osasunaren hobekuntza da (Elida Alfaro, 2008). Genero ikuspegia aztergai mantenduta baina gazteen ikuspegitik, esan genezake orokorrean ez dagoela alderik bi genero nagusien artean. Hala ere, forma egokian mantentzeko adierazpenetan gizonezkoek %5 batek adierazten duen bitartean emakumezkoetan %10an aurkitzen da.

Generoa, gazte perspektiba batetik analizatu ezkerro, gizonezkoen artean %73 batek kirola edo ta jarduera fisikoa praktikatzeko duen bitartean, emakumezkoek dagokionez %53 batean aurkitzen da praktika tasa. Eraikuntza sozialaren bilakaeran, maskulinitatea zein feminitatearekin lotutako ereduak gazte garenetik eragiten gaituela argi geratzen delarik (CSD, 2011) .

## 4. METODOLOGIA

Laudioko gazteen kirol azturen galdetegia, izenburua esaten duen bezala Laudioko gazteen kirol ohituren inguruko ikerketa bati zuzenduta aurkitzen da. Laudio 18399 biztanle dituen herriak 951 biztanleko tasa dauka 11-16 urte bitarteko gazteriarri dagokionez. Gazte hauek, lau ikastetxe desberdinetan banatuta aurkitzen dira, Laudioko Institutua, Lanbide Heziketa Zentroa, Milagrosa Ikastetxea eta Laudio Ikastola. Ikerketarako beharrezkoak ziren galdetegiak egiteko Laudio ikastola baliatu izan dugu. Nagusiki, Laudio Ikastola baliatu izan da, alde batetik, ikastetxearekiko dudan hurbiltasun pertsonalagatik horrek dakarren komunikazio erraztasunarekin eta bestalde, Laudio herriaren gazteen analisisan lagin egokia izateko aukera ematen baizigun. Bide horretatik, Ikastolan gaur egun aurkitzen diren 228 ikasleetatik, 220 ikaslek osatu dute galdetegia. Ikerketatik eratorritako emaitzak adierazgarritzat hartzeko aukera ematen duelarik.

### 1) IKERKETAREN HELBURUA

Galdetegiaren helburu nagusiak, Laudioko gazteek dituzten kirol azturen eta ohituren inguruko diagnosi bat burutzea. Kirolarekiko interesa eta ikuskera, modalitate desberdinetan aurrera eramaten dituzten praktika desberdinak eta aisialdi denboraren erabilera.

### 2) POPULAZIOA

Populazioa Laudioko edo ta Laudion ikasten duten 11-16 urte bitarteko gazteak dira. Hortaz DBHko lau kurtso desberdinetan aurkitzen diren ikasle horiei zuzenduta. Hots Laudion adin tarte horretan aurkitzen diren 951 pertsoneri zuzendutako galdetegi bat da, herriko lau ikastetxe desberdinetan banatuta daudenak.

### 3) IKERTZE EREMUA

Ikerketa honen eremu geografikoa Laudioko udalerriri mugatzen da.

#### 4) ERREFERENTZIA ALDIA

Galdetegia gauzatzeko 2017/2018 ikasturteko ikasleak baliatu izan dira.

#### 5) OINARRIZKO KONTZEPTUAK

**Kirola.** Modu antolatuan edo antolatu gabean aurrera eramaten den edozein formatako jarduera fisikoari deritzo. Helburu modura, egoera fisiko edo ta psikikoaren hobekuntza, harreman sozialen garapena edo ta edozein mailako lehiaketetan emaitza bat bilatzea duena. UNESCOk 2009. urtean kultur estatistiken markoaren baitan, kirol praktika guztiak barne biltzen dira aurrera eramatearen zergatiari (osasuna, egoera fisikoa, ludikoa) erreparatu gabe.

#### 6) SAILKATZE EZAUGARRIAK

Norbanakoaren sailkapenerako baliatutako ezaugarriak genero, adina, ikastetxea, maila, jaioterria eta gurasoen jaioterria izan dira.

**Genero sailkatzeari** dagokionez, emakumezko eta gizonezkoen arteko bereizketa egin da nagusiki, hala ere, aukera eman izan da pertsonaren bat desberdin sentitzen bada galdetegian adierazteko.

**Adinaren sailkapena** banaka gauzatuko da. Hau da, aurrera eramandako ikertze ratioa hain txikia izanda (11-16 bitartean) interesgarria da urtez urte ematen diren aldaketen analisisa kontuan hartzea.

**Ikastetxearen sailkatzea**, Laudioko udalerrian aurkitzen diren ikastetxe guztiak adierazten dira aukeren artean, nahiz eta, epe motzean inkestak Laudio Ikastolan aurrera eramango diren arren, etorkizunean ikerketa herriko beste ikastetxeetara zabaltzea espero da.

Hezitze prozesua aurrera eramateko aurkitzen zaren ikastetxea alor interesgarria izan daitekeelarik kirol azturen inguruko diagnostia burutzerako orduan. Bide berdinetik, ikasle bakoitza aurkitzen den maila zuzenki lotuta egon daiteke norbanakoaren interesekin, kontuan hartu beharreko aspektu bilakatzen delarik.



**Jaioterriari** dagokionez, kontuan hartu beharreko faktore bat da Laudiotarra, edo ta etorkina izateak eragin zuzena izango dezakeela kirol praktketan aurrera eramaten diren harreman sozialean.

## 7) GALDETEGIA

Galdetegiaren diseinuari dagokionez, “encuesta sobre hábitos deportivos de los españoles 2005,2010,2015”, “encuesta sobre los hábitos deportivos en España 2010,2015”, encuestas de hábitos deportivos 1980-2015, “los hábitos deportivos de la población de Valencia 2000 eta “los valencianos y el deporte” eta “Encuesta de hábitos deportivos en la Comunidad Autónoma del País Vasco, 2009” baliatu izan dira. Aztertu nahi nituen aspektuei zuzendutako galdera egokiena hautatuz galdetegi pertsonalizatua sortu.

Galdetegia modu honetan formulatzen da. Lehendabiziko atalean, pertsonaren sailkapenari zuzendutako galdera pertsonalez osatua dago, norbanakoaren ezaugarriak ezagutzeko aukera ematen digularik. Ondoren, orokorrak diren modulu horien baitan, kirolarekiko interesaren eta ikuskeraren inguruko galderak agertzen dira. Bigarren atalean, modulu espezifikoak osatzen dute. Bertan, inkestatu bakoitzak kirolarekiko duen loturaren arabera galdetegi desberdin bat bete behar du. Hots, kirola praktikatzan duten gazteek kirol praktikatzailearen atala bete behar duela, kirol praktikatzaile izandakoa praktikatzaile ohiaren atala eta bukatzeko kirol inoiz ez praktikatu duten pertsonak kirola ez praktikatzaileen ataleko galdetegiei erantzun beharko diete. Azken atalari dagokionez, berriz ere modulu orokorraren parte da. Denbora librearen erabilerari zuzendutako galdera sorta bat bete beharko dutelarik inkestatu guztiek.

### **Datu pertsonalak**

Atal honetan inkestatutako pertsona horren ezaugarriekiko sailkatze bat gauzatzeko baliatu egiten da. Kasu honetan, generoa, adina, ikastetxea, maila, jaioterria eta gurasoen jaioterria baliatu izan dira.

## **Kirol ikuskera**

Atal honetan galdera sorta batez baliatuta, inkestatu bakoitzak kirolaren aurrean edo kirol kontzeptuaren aurrean duen ikuskeraren inguruko analisi bat burutzen da. Horretarako inkestatuek planteatzen zaien afirmazio bakoitzaren aurrean duten adostasun maila adierazi beharko dute, guztiz ados, nahiko ados, nahiko desados edo ta guztiz desados daudela adieraziz.

## **Kirolarekiko gustua**

Ikertu bakoitzak kirol praktikatik gehien eta gutxien gustatzen zaion hori adierazi behar du, horretarako aukera desberdinak ematen zaiolarik.

## **Kirol praktika**

Kirol praktikari zuzendutako atal honetan, inkestatuen eskolaz kanpoko orduetan burutzen duten kirol praktika objektiboaren inguruko informazioa jasotzera bideratuta dago. Honen bidez, praktikatzaileen, ez praktikatzaileen eta praktikatzaile ohien arteko bereizketa burutu ahal izateko.

## **Kirol praktikatzaileak**

Modulu espezifiko honi dagokionez, kirol praktikatzaileek kirola praktikatzeko arrazoi nagusienak, maiztasuna, noiz hasi ziren, norekin praktikatzen den eta zeintzuk diren kirol horiek eta zein den praktika horien izaera beraien asebetetze mailarekin batera.

## **Kirol praktikatzaile ohiak**

Modulu espezifiko honetan lehen kirola praktikatzen zutenei baina gaur egun alde batera utzi duten pertsona horiei zuzenduta dago. Atal honetan, lehen praktikatzen zuten kirolaren inguruan, kirol ustea noiz eman zen eta zergatik eta etorkizun batean itzultzeko asmoa duen edo ez galdetzen zaie.

## **Kirol ez praktikatzaileak**

Modulu espezifiko hau kirol praktikatzaileak izan ez diren pertsona horiei zuzenduta dago. Bertan, soilik kirola ez praktikatzearen zergatien inguruan galdetzen zaie.

## **Denbora librea**

Modulu orokor hau inkestatu guztiek bete behar dute galdetegia balekoa izateko. Bertan, denbora librea zertan inbertitzen den eta zein maiztasunarekin egiten den galdetzen da.

## **8) LAGINAREN DISEINUA**

Laginaren diseinua ikerketaren helburuak ahalbideratzeko beharrezkotzat hartu ditudan baldintzak bete izan dira.

Laginerako Laudio Ikastolako 11-16 urte bitarteko 228 ikasleri bidali zaie galdetegia horietatik 220 erantzuna eman dutelarik. Laginaren datu objektiboak dagokionez, erantzuna eman duten 220 ikasleetatik bost galdetegi baliogabetu dira erantzun okerrak eman izanagatik. Analisisirako erabili izan diren beste 2015 galdetegiak dagokionez, 111 gizonezkoak, 103 emakumezkoak eta beste pertsona 1 bere burua neutrotzat hartzen zuena parte hartu dute. Adinari dagokionez, galdetegietako pertsonak nahiko homogeneoki banatuta aurkitzen dira. Hots, 11 urterekin %1,4, 12 urterekin %12,1, 13 urterekin %26,5, 14 urterekin %22,3, 15 urterekin %27,9, 16 urterekin %8,8 eta bukatzeko 17 urte beteta zutenek %0,9 osatzen izan dute. Beraien heziketa aurrera eramaten duten zentroari dagokionez %100 Laudio Ikastolan aurrera daramate. Burutzen duten ikasturteari dagokionez, DBHko lau kurtsoetan banatzen dira ikasleak modu homogeneoan (DBH1 %24,7a, DBH2 %25,6, DBH3 %24,7 eta DBH4 %25,1). Bukatzeko, beharrezkoa da azpimarratzea galdetegia osatu dutenetatik soilik %4,65 etorkina dela. Ondoren plazaratuko diren datuak ezingo direlarik estrapolatu herri mailako ikuskerari.

## 9) DATUEN BATZEA ETA TRATAERA

Informazioaren batzea internetetik gauzatu egin zen, bertan aurrera eraman baitziren galdetegi guztiak. Horretarako, "google formulario" aplikazioa baliatu izan nuen, alde batetik, galdetegia ordenagailuan aurrera eramatea erraztasunak ematen dituelako datuen trasbasea burutzerako orduan. Bestalde, ekonomikoki zein ekologikoki burutzen den aurreztea oso nabaria da, ez direlako galdetegiaren ehundaka kopia inprimatu behar. Galdetegi guztiak, martxoaren 16an arratsaldeko 15:30tan burutu ziren modu bateratuan.

Lehendabizi, ikastolako zuzendaritzarekin harremanetan jarri nintzen Audio mailan burutu nahi nuen ikerketaren berri emateko. Beraien laguntza eskatuz galdetegiak aurrera eramaterako orduan. Behin adostasun batera helduta klase bakoitzeko tutorearekin kontaktuan jarri nintzen proiektuaren berri emateko eta denon artean galdetegia burutzeko data bat adostu genuen. Behin adostuta martxoaren 16an aurrera eramango genuela, ikastolako IKT zuzendariarekin harremanetan jarri nintzen berari galdetegia konpartitzeko, berak, ikasleekin konpartitu zezan, ikasleen anonimatua mantentzeko eta beraien informazio pertsonalaren jabe ez egiteko.

Behin galdetegien datuak internet bidez jasota nituela ikastolako zuzendaritzari eskerrak eman eta behin lana burututa datuen analisia erraztuko nizkiela aditzera eman nien.

Erantzunen analisia gauzatzeko orduan beharrezkoa bilakatu zen inkestatu batzuen erantzun batzuk moldatzea, beti ere, beraiek emandako erantzuna moldatu gabe. Hots, inkestatu batzuek beraien erantzuna aukeretan aurkitzen zen bitartean, beste erantzun bezala plazaratu zuten beraien galdetegietan. Horrek eragin zuzena duelarik datuen zenbaketan. Beraz, emaitzen sailkatze egoki bat gauzatzeko beharrezkoa izan da emaitza horiek moldatzea, beti ere inkestatuaren erantzunean eragin gabe. Gainera, emaitzen sailkatzea modu egokian gauzatzeko, galdetegietatik jasotako datuak sailkatu eta moldatzeko "Excel" programa erabili izan da.


## 5. DATUEN ANALISIA

Behin inkesta guztiak burutuak daudela ikusita eta datuen sailkatze egoki bat eginda, datu horien analisisa abiatzea beharrezkoa da. Horretarako, emaitzak behin aztertuta daturik esanguratsuenak bildu eta horiek xehatu behar dira. Lehendabizi emaitza horiek ikertu, ondoren, estatu mailako datuekin konparatu eta bukatzeko horren zergatia hipotesia atera izan dut. Beti ere aurretik aipatutako marko teorikoan oinarriturik. Hortaz, honako hauek dira galdetegietatik eratorritako emaitzetatik daturik eta esanguratsuenak.

### 1) GAZTEEN KIROL IKUSKERA

Lehendabizi beharrezkoa da diagnosi objektiboaren analisisan Laudioko gazteek kirolarekiko duten ikuskera eta ikuspuntuak aztertzea. Ondoren praktikaren inguruan aurkitu ditzakegun emaitza desberdinak modu egokiagoan interpretatu ahal izateko. Bide horretatik, kirol ikuskeraren inguruan lortutako emaitzei erreparatzen baldin badiogu argi ikusi daiteke galdetegia osatu duten gazteen artean oso zabaldua dagoela kirola osasunerako tresna egokia delaren ideia. Egiaztapen horren aurrean guztiz ados 157 eta nahiko ados 46 pertsona erantzun dute, modu positiboan %94,4 baloratu izan dutelarik. Guztiz desados soilik 2 pertsona agertu diren bitartean (%0,9). Estatu mailako datuei erreparatu ezker, ondorioztatu daiteke nahiko zabaldua dagoen ikuskera bat dela %97,8 batek guztiz ados (%59,5) edo nahiko ados (%38,3) aurkitzen delako adierazpen honekin (García Ferrando, M, 2006). Ikuspegi positibista honi jarraiki kirola lagunak egiteko eta harremantzeko tresna bezala baliagarria dela %92,56 batek adierazten du (guztiz ados %55,8a eta nahiko ados %36,74a ) , adierazpen horrekin desados %5,58a bakarrik aurkitzen direlarik.


Genero ikuspegi batetik ikertu ezkerro, Ikusi dezakegu ez dagoela alde adierazgarririk adierazpenen artean. Biek, Bi adierazpenekin ados aurkitzen direla esan genezake.



*Irudia 1* Laudioko gazteek kirolarekiko duten ikuskeraren lehenengo zatia

Beste baieztapenak analizatzerako orduan ikusi dezakegu datuak ez direla hain modu adierazgarrian aditzera ematen. Datuak homogeneousago plazaratzen dira. Horren adibide, kirola agresibitatea eta umore txarra kanporatzeko tresna egokia da, non, guztiz ados 43 pertsona aurkitzen diren bitartean, 36 pertsona guztiz desados aurkitzen direla adierazten dute. Hala ere, erantzun ez hain polarizatuerei erreparatzen baldin badiogu. Argi geratzen da adierazpenarekin nahiko ados 86 (%40) pertsona aurkitzen direla, nahiko desados hautatu duten 30 (%13,95) pertsonen aurrean. Aurreko baieztapenean bezala, datuak modu homogeneousagoan banatzen dira, hala ere nahiko ados erantzuna da nagusi. Bizitzaren trabei aurre egiteko mekanismo bezala definitzen denean 99 (%46,05) pertsona nahiko ados aurkitzen dira baieztapenarekin. Gainera, guztiz ados 56 (%26,05) pertsona, nahiko desados 35 (%26,28) eta guztiz desados 10 (%4,65) pertsona hurrenez hurren. Bukatzeko, azkenengo bi adierazpenei dagokionez, diziplinatzeko eta hezitzeko, ikasteko ahalmena handitzen laguntzeko eta ikasketetarako prestatzeko balio duela, baita ere nahiko ados dauden pertsonak nagusitzen dira 71 (%33,02) pertsona lehenengoan eta 81 (%37,67) bigarreanean erantzun dutelarik. Hala ere, azpimarragarria da ez dakit ez dut erantzuten laukia, lehenengo galdera 31 aldiz eta bigarreanean 22 aldiz hautatu dutela gazteek.

Honako adierazpen hauei emandako erantzunak, genero ikuspegi batetik ikertuta, argi ikusi daiteke kirolaren ikuskeraren eraikuntza sozialean berdin egikaritu izan dela bi genero hegemonikoen (emakumezkoak eta gizonezkoak) artean. Kirol ikuskeran beraien arteko aldea adierazgarria ez delarik.




*Irudia 2* Laudioko gazteek kirolarekiko duten ikuskeraren bigarren zatia

Kirol ikuskerarekin jarraituz, kirol praktikatzaileak diren edota ez diren gazteei, kirolaren alde positiboak plazaratzeko galdetzen zaienean gehiago batek sasoi edo egora fisiko egoki bat izateko aukera ematen diela adierazten dute (%55,8). Hala ere, jarraian gehien hautatutako erantzunei dagokionez kirola inguratzen duen entretenimendua (%43,7) eta lagunekin egoteko aukera ematen duela (%43,3) adierazi izan da. Hala ere, interesgarria da adieraztea, laugarren hautatuen lehia izan dela %9,3 batekin, gehien bat kontuan izan da kirolaren alor negatiboetatik galdetzen denean nagusitasun handiz (%52,6) lehiaketak eta borrokak aditzera ematen direlarik.

Analisiak genero ikuskera batetik ikertu ezker, beheko grafikoan ikusi daitekeen moduan ez dago alde nabaririk bi genero hegemonikoen artea, gizonezkoen zein emakumezkoen lerroak paraleloki marrazten baitira grafiko osoan zehar. Hala ere, adierazgarria da gizonezkoak nagusitzen direla lehiaketak modu positiboan baloratzen duten horien artean. Eta ordez, kirolaren erlaxatzeko ahalmenari

dagokionez emakumezkoak dira nagusi. Hala ere, lehen aipatu bezala aldea ez da adierazgarria bi generoen artea.




**Irudia 3** Kirolaren alderdi positiboak Laudioko gazteentzat

Kirolaren alde negatiboak dagokionez, aukerarik eta hautatuena kirolean sortzen diren borroka eta lehia egoerak izan dira nagusitasun handiz, erantzun guztien artean %32,66a osatuz. Bigarren maila batean kirolean sortzen den tentsioa (%23,3) adierazten dute aspektu negatibo bezala. Jarraian, kirolarekiko hartzen diren jarrerak erreparatu behar diren (%21,9). Emaitzei orokorki begirada bat bota ezkerreko esanenez, kirolek modu negatiboan adierazten diren faktore nagusienak kirolaren barne izaerari erantzuten dietela. Aurretik aipatutako hiru faktore nagusi hauek erantzun guztien %77,87 osatzen dutelarik. Hortaz, kirolari ematen zaion erabilerrari edo kanpo faktoretzat hartu dezakegun faktore negatiboena erreparatzeko laugarren hautatuenera jo behar dugu, publizitatea delarik (%12,72).




Genero prismatik analizatu ezkerro, ikuspegi positiboan ez bezala emaitzak ez dira, hain heterogeneoki banatzen gizonetako eta emakumezkoen artean. Desberdintasun handiena gaur eguneko kirol ikuskerarekin lotuta egongo litzateke, non, kirolean sortzen diren borroka edo lehia egoerei dagokionez, emakumezkoak (%56,64) nagusiki hautatu izan dute, gizonetako (%43,36) aurrean. Hala ere, aldea ezin dezakegu adierazgarritzat hartu. Beste hautaketan kasuan nagusitasuna gizonetako artean aurkitu izan da, besteak beste, kirol profesionala eta dirua (%64,52), publizitatea (%63,64), kirol inguratzen duen ergelkeria (%60,89)...




irudia 4 Kirolaren alderdi negatiboak Laudioko gazteentzat

Galdetegia osatu duten gazteek kirolarekiko duten loturari erreparatzerako orduan, beharrezkoa da taldekatzea osatzeko beraien kirol praktika maiztasun eta egituratzearen inguruan galdetzea. Datuak sailkatzerako orduan kirolen bat praktikatzuten duten gazte oro hartu ditugu kirol praktikatzaitzat. Beraz, kirol bakarrik praktikatzuten duten gazteak (%46,5), bi kirol praktikatzuten duten gazteak (%23,7) edo ta hainbat kirol (%9,8) praktikatzuten duten gazte horiek kirol praktikatzaileak deritzote. Hortaz, ondorioztatu dezakegu galdetegia osatu duten gazteen %81a kirol praktikatzaitzat hartu ditzakegula. Kirola inoiz ez praktikatu dutenen (%4) eta praktikatzaile ohiak (%15) izandakoen aurrean.



*Irudia 5* Laudioko gazteek kirol praktikarekin duten lotura

Genero ikuskera batetik ikertu ezkerro, modu adierazgarrian ikusi daiteke kirol praktikarekiko loturari dagokionez, emakumezkoen kasuan kirola praktikatu ez duten pertsona guztien artean %87,5a osatzen dutela. Baina, kirol usteari dagokionez, gizonezkoak dira nagusi %56,65arekin. Beraz, ondorioztatu dezakegu honen nagusitasuna kirol praktikatzaileen artean gizonezkoak gehiago diren heinean logikoa dela kirol uzte horren baitan gizonezkoak nagusi izatea. Hala ere, egoera nahiko paradigmaticotzat hartu dezakegu.




*Irudia 6* Laudioko gazteek kirol praktikarekin duten lotura, genero ikuspegi batetik.

Bestalde, aldea adierazgarria ez den arren, azpimarragarria da kirol bakarraz mintzo garenean gizonezkoak direla nagusi. Gaur eguneko kirol eredu modernoaren baitan, bizi dugun espezializazio eta teknifikazio prozesuetan gizonezkoak nagusi direlarik. Hots, gizarteratutako esteriotipoen baitan, errendimendura zuzendutako norbanakoak gizonezkoak diren heinean, beraien praktikak, kirol konkretu baten inguruan mugatzen dira errendimendu maximoaren bila.

## 2) KIROLA PRAKTIKATZEN DUTEN GAZTEAK

Analisiak kirol praktikatzaileen artean zentratzen baditugu, gazte hauek kirola praktikatzera zerk daramatzen jakitea beharrezkoa da. Horri helduta jakin daitekeelako zergatik gazteek jarraitzen duten kirol praktika berarekin edo zerk daramatzen kirol hori uztera. Castillo eta Balaguerrek, 2001.urtean adierazi bezala kirol praktikaren zergatiak hiru talde desberdinetan banatu daitezke, osasunarekin lotutakoak, afiliazioarekin edo ta onarpen sozialarekin lotutakoak. Sailkatze honetan oinarriturik eratorri dira galdetegian gazteek dituzten aukerak. Datuetan zentratu ezkerreko ikusi dezakegu gazte gehienak kirola praktikatzen dutela praktikatzearen plazer hutsagatik. Hots, lehenengo aukera bezala kirola gustuko izatea (%25) egongo litzateke, bigarren aukerari dagokionez, dibertsio edo denbora pasa moduan (%19) eta hirugarren postuan jarduera fisikoa egiteko (%16). Hortaz, ikusi daiteke parte hartzaileen %60 batek kirola praktikatzen duela praktikatzearen plazer hutsagatik. Modu ez hain nabarian, kausa efektu logikari jarraiki, gazteek kirola praktikatzen dute, kanpo faktore edo helburu bat lortzeari begira. Logika horren erreprodukzioa beheko irudiaren gainontzeko datuetan topatu ditzakegu. Horren adibide dira, lagunekin elkartzeko (%14), osasuna mantendu edo hobetzeko (%13), egunerokotasunetik ihes egiteko (%7) edo ta fisikoki ondo ikusteko (%7), besteak beste.

## KIROLA PRAKTIKATZEAREN ZERGATIA




*Irudia 7* Laudioko gazteek kirola praktikatzearen zergatiak

Estatu mailan emaitzei erreparatzen baldin badiogu datuak askoz ere polarizatuak aurkitzen direla nahiko deigarria da. Hau da, nagusitasun handiarekin adierazten dute gazteek jarduera hori gustuko dutelako burutzen dutela (%53). Bigarren maila batean ordea, forma fisiko egokia lortu edo mantentzeko burutzen dutela adierazten dute(%17) (Garcia Ferrando, 2015).


Hala ere, gustuko izateagatik praktikatzen dutenen kasuan, datuak beti ere kaxotxen artean ikertu behar dira. Hots, gizartearen baitan hartzen diren erabakiak beti faktore sozial batzuen baitan hartu egiten dira, inguratzen gaituen erakitze familiar zein hezkuntzakoaren arabera erabakietan eragina izaten dute (Barata eta Mosquera, 1998).

Kirol praktikaren maiztasunaren edo ta urteko garai bakoitzean duen ohikotasunaren arabera Laudioko gazteek astean hirutan edo gehiagotan praktikatzen dute kirola nagusiki (%71,5), bigarren maila batean astean birritan praktikatzen duten gazteak aurkitzen direlarik %21,5eko ehunekoarekin. Hala ere, paradoxikoa da. Objektiboki denbora libre gutxiago duten garai horietan kirol gehien aurrera eramaten duten garaia da. Ikertutako gazteen %36,6 batek ikasturtean zehar aurrera eramaten dituzte kirol praktika gehienak. Udan kirol praktika gehien %15,7a bakarrik gauzatzen duen bitartean. Espainia mailan, soilik gazteen %45 batek kirol berdina praktikatzen du opor garaian. Ondorioztatu dezakegu, faktore desberdinak eragiten dutela kirol praktikaren egituratze modeloan, garaiari dagokionez. Lehendabizi, adierazi behar da aurrera eramaten diren kirol praktika gehienak jarduera antolatua direla, hots, asoziazionismoa oinarri dutelarik. Beraz, opor garaietan, udan nagusiki, gazte gehienak kirol praktika antolatua praktikatzeari uzten diote, praktika bera alboratuta

geratzen delarik kasu askotan (Hábitos deportivos de la población escolar en España,2011).




*Irudia 8* Laudioko gazteek zein maiztasunarekin praktikatzen duten kirola



*Irudia 9* Laudioko gazteek urteko zein garaietan praktikatzen duten kirol gehien

Laudioko kirol praktikaren egoerari erreparatzen baldin badiogu ikusi daiteke gazteen %76 batek kirol klubek, federazioek edota kirol elkarte konkretuek burutzen dituzten kirol praktiketara parte hartzen dutela. Aurretik aipatu bezala udako oporretan


normalean kirol praktika egituratu hauek antolatzeari uzten diote. Kontraesan batean erortzera eramaten gaituelarik. Gazteak denbora libre gehien duten garaietan kirol praktika gutxiago praktikatzen dute. Hots, aisialdirako baliatzeko denbora libre gehien duten garaietan kirola baztertu eta bestelako aisialdi praktikak burutzen dituzte. Hortaz, paradigma honen erantzuna definitzerako orduan ezinezkoa da aurretik aipatutako faktore konkretu soil horren ondorio izate. Bestela, ondorioztatzen egongo ginateke, alde batetik, gazteak ez direla kapazak beraien kirol praktika propioak antolatzeko edo ta ahalmen hori lapurtua izan zaiela. Bestela, kirol praktika bera ez duela hainbesteko erakarpen soziala, praktikaren plazer hutsean oinarritu ezker. Beraz, analisi egoki bat gauzatzeko beharrezkoa da kirol praktiken kanpo faktoreak ekuazioaren baitan sartzea. Hortaz kontuan hartu behar da kirola eguneroko bizitzan gazteek dituzten bete beharretatik ihes egiteko tresna bezala ere baliatzen dela. Hots, eguneroko bizitzan dituzten bete behar horietarako beharrezkoa duten egoera fisiko zein psikologikoa garatzeko aukera eta eguneroko bizitzaren betebeharretatik ihes egiteko mekanismo dira kirola zein jarduera fisikoa (Brohm,1976).



*Irudia 10* Laudioko gazteek aurrera daramaten kirol praktikaren egitura

Praktika beraren egituraren datuak ikertzerako orduan, kirol klub edo federazioei lotutako praktikek duten nagusitasuna ikusita ondorioztatu daiteke gazte hauek kirola burutzerako orduan baliatzen duten giza esfera nagusiki kirol klubeko kideak izango direla. Baina, praktikaren konpainia aztertzen duen galderaren datuei

erreparatzen baldin badiogu ikusi daiteke nagusitasun handiarekin gehiengo batek (%63) kirol praktika lagun talde batekin gauzatzen duela, kirol klubeko kideekin gauzatzen dutenen aurrean (%14). Beraz, gazteek beraien harremantze esfera egituratzerako orduan garrantzi handiko eragilea aisialdi beraren egitura izango litzateke. Hots, gazteek beraien denbora librean harremantzen diren marko edo esfera bera laguntzat hartzen dituztela esan genezake, taldeko kide bezalako sailkatzeak baztertuz.




*Irudia 11* Laudioko gazteek normalean norekin praktikatzen duten kirola

Baina kirol praktikan ematen dituzten lehenengo pausuei dagokionez, gehiengo batek 5-7 urte bitartean hasi egiten dira, kirol praktikatzaile moduan galdetegia osatu duten 172 pertsonetatik 100 pertsonak ( %58,14) adin tarte horretan hasiera eman diote beraien kirol ibilbideari. Egoera hori bai emakumezko zein gizonezkoen artean ematen da. Hots, 5 urterekin ematen dira praktikatzaile berrien hasieraren emaitzarik altuenak.

Genero ikuspegi batetik aztertu ezkerro ikusi daiteke gehienetan gizonezkoen datuak emakumezkoena baino altuagoak direla, adin bakoitzeko praktikatzaile absolutuei dagokionez edo ta ehunekoari. Hala ere, ikusi daiteke bilakaera hori eraldatu egiten dela 8-9 urte bitartean non emakumezkoen datuak gizonezkoena baino altuagoak dira. Hots, 8 urterekin kirolean emakumezkoen bikoitza hasi ziren kirol

praktikarekin. Datu, horiek bakarka analizatu ezkero badirudi emakumezkoen kirol praktikatzaile tasa gizonezkoena baino handiagoa dela. Hots, orokorrean emakumezkoak gizonezkoak baino beranduago hasten direla kirola praktikatzen.

Gainera, egoera kontraesankor baten aurrean aurkitzen gara, eliteko kirolari erreparatu ezkeru, emakumezkoak gizonezkoak baino azkarrago, gazteagoak direlarik, heltzen dira eliteko kirolari izatera. Baina beheko grafikoan datuei erreparatu ezkeru, kirol praktikan beranduago hasten direla aditzera ematen da. Hortaz, emakumezkoak helduagoak direnean hasiera ematen diote kirol praktikari.



*Irudia 12* Laudioko gazteak zenbat urte dituztela hasten diren kirola praktikatzen

Gaur egun estatu mailan 66 kirol federazio desberdin aurkitzen dira, guztien artean 400 modalitate baino gehiago batzen dituztelarik. Kirol federatuetaz aparte baita ere aurkitu daitezke beste jarduera fisiko eta kirol desberdina. Besteak beste dantzari edo ta fitnes munduari lotuak daudenak. Estatu mailako datuei erreparatzen baldin badiogu, eskola adineko gazteek praktikatzen dituzten bost praktika nagusienak futbola (%22), saskibaloia (%9), dantzak (%9), igeriketa (%8) eta areto futbola (%7) dira, hurrenez hurren (CSD,2011). Laudioko datuen arabera, antzeko emaitzak erreproduzitzen dira. Kirol modalitate guztien artean futbola da kirolik eta praktikatuena %21,72arekin, beste praktiken aurrean duen hegemoniaren adierazle delarik. Ondoren, saskibaloia %8,63rekin, dantzak %7,35arekin, igeriketa %6,39arekin eta areto futbola %1,26arekin. Estatu mailako eta Laudioko datuak konparatzen baldin




badiugu esan genezake areto futbolaren kasuan kenduta, beste guztietan modu nahiko homogeenan erreproduzitzen direla gazteen praktika tasak. Azken finean, gaur eguneko kirol eredu globalizazioaren faktore nagusienetako bat bilakatu izan da. Hemen, aurrera eramaten diren praktika horiek nagusiki modu berdinean erreproduzitzen direlarik, Andaluzian, Frantzia edo ta Australian bertan ere. Hala ere, globalizazio prozesu hauek eragina jasan dezakete ingurune bakoitzeko kultura ezaugarrien ondorioz. Modu horretan Laudioko datuei erreparatzen baldin badiogu nahiko argi ikusten da mendi ibiltarritza edo ta txirrindularitza bezalako kirol praktikak euskal kulturaren ezaugarri direla, horiek kirol praktika globalizatuan txertatzen diren euskal kulturaren ezaugarriak direlarik (Bourdieu, 1997). Euskal kulturaren ezaugarriei jarraiki, baita ere kontuan hartu behar den beste praktika bat euskal pilotarena izango litzateke, praktikatzaileen %4,79 batekin, ez da kirol hegemonikoen maila berdinean aurkitzen baina bertakoa den praktika bat izateko esan genezake prozesu globalizatzailearen aurrean nahiko osasuntsu aurkitzen den praktika bat dela gaur egun oraindik ere.

Euskal kulturaz aparte, baita ere eragin zuzena izaten du gazteen kirol praktikaren baitan herrian bertan topatu daitezkeen eskaintza desberdinak kirol antolatuari dagokionez edo ta instalazio desberdinak ez antolatuen kasuan. Hots, Laudioko gazteek burutzen dituzten praktika horiek zuzenki lotuta aurkitzen dira, herrian bertan aurkitzen den eskaintzarekin, instalakuntzekin edota izan dezakeen orografiarekin. Ez da kasualitatea Laudio bezalako herri bat, mendiz inguratuta dagoena, gazteen artean bigarren praktika mendi ibiltarritza eta alpinismoa izatea %8,95eko tasarekin.

Kirol praktikaren eta eskaintza zein instalakuntzen loturaren inguruko hainbat datu interesgarri plazaratu daitezke. Beheko grafikoan, plazaratzen diren datuei dagokionez, modu antolatuan edo ez antolatuan izan da ere, soilik eskia, hipika, errugbia, golfa eta goalballa ezin dira herrian bertan praktikatu. Nahiz eta, praktika gehienak eskualdean aurrera eramane daitezkeen. Hortaz, datuei erreparatzen badiogu, honako praktika hauek dira praktika gutxien duten horiek bi arrazoi nagusiengatik: hurbileko instalakuntza eta eskaintza falta eta praktika ez hegemonikoak izatearen ondorioz. Faktore hauen arteko loturaren adibide nagusienak herrian, tenisa eta kickboxina izango lirateke. Laudioko kasuan hauen eskaintza orain dela bost bat urte sortu zen. Hauen sorrerarekin praktikatzaile tasan gorakada

substantzial bat gauzatu delarik. Tenisaren kasuan behitzat, gazteen artean nahiko praktikatua den kirolatzat hartu dezakegarik.




*Irudia 13* Laudioko gazteak praktikatzen dituzten kirolak

Orokorrean nagusiki praktikatzen dituzten lehenengo 10 kirol nagusien praktikaren baturak praktika osoaren %78,67 osatzen dute. Gizarteratuta dauden praktika konkretuetan kontzentrazio egoera ematen delarik.

Estereotipoek izandako bilakaera edo egoera aztertu ahal izateko beharrezkoa da praktika desberdinak sailkatzea gizarteratutako eraikuntza sozialaren arabera. Praktika bakoitzak izan duen ohitura sozialaren arabera aztertu ahal izateko. Alde batetik, sozialki gizezkoztat kontsideratu izan diren praktikak ( futbola, borroka kirolak...) aurkitzen dira. Bestetik, ordea, emakumezkoztat kontsideratzen diren praktika (dantzak, gimnasia erritmikoa...) daude.

Aurreko analisiari jarraiki, ikusi daiteke aurrera eramaten diren kirol modalitateen barne logikaren oinarri nagusia, lehia dela. Mendi ibiltaritza edo ta dantza bezalako kirol praktketan kenduta. Hortaz, kirol praktikan lehiaren egituratzearen inguruko datuei dagokionez, ikusi daiteke gazteen %67 batek

federazioek antolatutako lehiaketa prozesuetan parte hartzen dutela, internazionalak, nazionalak edo ta probintzialak izanda ere. Bigarren maila batean, ehunekoetan desberdintasun handia dagoelarik, lehiaketa eredu ez instituzionaletatik at aurkitzen diren praktikak deritzote %9 batekin. Bukatzeko, lehiaketetan parte hartzen ez duten gazte horiek aurkituko lirateke, %18 batekin. Hortaz, aditzera ematen da gaur egun gazteen artean zabaldutako kirol praktikak nagusiki modu antolatuan aurrera eramaten dituztela. Hots, ikuspegi eta izaera asosiazionista batetik abiatzen direla kirol praktika gehienak. Horien barne logikari erreparatzen baldin badiegu, lehiari ematen zaio garrantzi handiena edo aurrera eramaten diren praktika horien oinarria lehia izango litzateke.




*Irudia 14* Laudioko gazteek praktikatzen duten kirolaren lehiaketa egitura

Ikusita lehiaketarekiko dagoen nagusitasuna kirol praktikei dagokionez, nagusiki modu antolatuan edo ez antolatuan izan da ere lehia praktika gehien oinarria baita, ez da harrizkoa galdetegia osatu duten gazteen %60,5 batek lehia gustuko izatea bere burua asebetetzen duelarik. Hala ere, aditzera ematen dute %57,9 batek seguru asko kirol praktika praktikatzen jarraituko luketela lehia desagertuko balitz edo ta lehiarik gabeko praktikak aurrera eramango bazituzten. Are gehiago, soilik %2,9 batek adierazten du lehiaketarik gabe ez lukela kirol praktikarekin aurrera jarraituko.

Hortaz, aurrera eramaten diren kirol praktika gehienen oinarria lehia izanda ere, gazteek ez dute beharrezkoa ikusten lehian oinarritutako praktikak izatea kirola praktikatzen jarraitu ahal izateko.

### 3) KIROL PRAKTIKATZEN EZ DUTEN GAZTEAK

Kirola praktikatzen ez duten gazteei erreparatu ezker, estatu mailako datuei dagokionez, eskola adineko gazteen sedentarismo tasa %35ean aurkitzen da emakumezkoen kasuan handiagoa izaten delarik %46ko tasarekin (Hábitos deportivos de la población escolar en España,2011). Laudioko datuei dagokionez, emaitzak oso bestelakoak dira, sedentarismo tasak askoz ere txikiagoak dira, gizonezkoetan %17a eta emakumezkoetan %21 delarik. Gainera genero ikuskera batetik, nahiz eta gizonezkoek emakumezkoek baino sedentarismo tasa txikiagoa duten, soilik 4 puntutan da estatu mailako 11 puntuko desberdintasunaren aurrean. Estatu mailako datuetan erreparatu daitekeen bezala, Laudioko kasuan ere sedentarismoaren datu esanguratsuenak 13-17 bitartean ematen dira. Beheko grafikoari erreparatu ezker, nerabezeroaren lehengo urteetan (11-13) gazteen sedentarismo tasa oso baxua da. Hots, laginetik soilik adin tarte horretako 3 pertsona sedentariotzat hartu daitezke. Grafikoan argi ikusi daiteke, adinean aurrera doazen heinean sedentarismoa areagotzen joaten dela modu progresiboan bi generoei dagokionez. Hala ere, kontuan hartu behar da emakumezkoen kasuan lehenagotik jotzen duela gorakada, hau da, 13-14 urte dituztelarik datuak adierazgarriak bilakatzen joaten dira, nagusiki kirol uzte tasaren ondorioz.




*irudia 15* Pertsona sedentarioen tasa genero ikuspegi batetik

Lehendabizi, zergatiak barne mailakoen eta kanpo mailakoen artean bereiztea beharrezkoa da. Barne mailako zergatiak adierazten ditugunean norbanakoaren erabaki propioetik eratorritako zergatiak dira. Hots, gustuko ez izatea, nagikeriagatik, denbora faltagatik, ondo ez emateagatik... besteak beste. Bestalde, kanpo faktoreei dagokionez, norbanakoaren eskuetan aurkitzen ez diren faktoreak izango lirateke, non bere erabakiek garrantzi gutxi duten, ekintzaren kostuagatik, urrun egoteagatik, gurasoek ez diotelako uzten edo ta gaixotasun edo lesio baten ondorio dira. Hala ere, kontuan izan behar dugu faktore hauek orokortasun batetik burutzen dute analisia beharrezkoa delarik, abstrakzio maila handiago batetik ikertzea.

Aurretik kirolik burutu ez duten gazte horien kasuan, ez praktikatzearen zergatiak %70 batean barne mailako faktoreen ondorio dira. Hau da, gogoko ez izatearen (%20), nagitasunagatik (%30) edo ta erabilerarik ez ikustearen (%20) ondorioz. Hala ere, beste %30 batean kanpo faktoreen ondorio dira, gustuko ez izatea(%10), integrazio falta (%10) edo ta ahalmen ekonomiko faltagatik (%10). Gazteak handitzen diren heinean, ez praktikatzearen zergatiak gero eta gehiago zentratzen dira barne mailako faktoreetan, nagusiki gurasoekiko dependentziaren gutxitzearen zein pertsonalitatearen garatzearen ondorio izatea. Genero ikuspegi batetik behatu ezker nahiko adierazgarria da aurretik kirola praktikatzen ez duten gazteen %87,5 bat emakumezkoak direla.

Gaur egun kirola egiten ez duten pertsonetatik, %80 batek aurretik kirola edo ta jarduera fisikoa egin izana adierazten dute. Genero ikuskerari dagokionez, ezin dezakegu adierazi aldea nabaria denik, aurretik kirol praktikatzaileak izandakoen %56,25 bat gizonezkoak eta %43,75 emakumezkoak ziren. Hala ere, interesgarria bilakatzen da, kirol uztearen inguruko parametro desberdinak ikertzea, kirol uzte hori sortzen dituen zergatiak antzemateko eta horri konponbidea bilatu ahal izateko. Laudioko gazteen kirol uzte tasari dagokionez, beheko grafikoan ikusi daitekeen moduan gaztean adinean aurrera doazen heinean modu esponentzialean handitzen doa kirola praktikatzeari uzten dieten gazteak.

Beraz, emakumezkoen kirol ibilbidearen inguruko datuak orokorki aztertuta (kirol praktikaren hasiera eta kirol uztea) ondorioztatu dezakegu gizonezkoen kirol ibilbidea baino motzagoa dela. Orokorrean, beranduago hasi eta lehenago bukatzen dutelako.




*Irudia 16* Laudioko gazteen kirol uzte tasa genero ikuspegitik

Beraz, beharrezkoa da identifikatzea ondorio honen eratorria. Gazteei kirol uztera eramaten dituen zergatiak identifikatzea eta sailkatzea horri erantzun zuzena eman ahal izateko. Beheko grafikoan ikusi daitekeen bezala, ikuskera orokor batetik

ikertu ezkerro ikusi daiteke barne faktoreen (%46,80) eta kanpo faktoreen (53,19) artean ez dagoela alde esanguratsurik. Bien bitartean, estatu mailako datuekin konparatu ezkerro, barne faktoreei (%67) dagokionez datuetan alde esanguratsua aurkitzen da 20 puntu baino gehiagoko aldearekin (CSD,2011). Hortaz, ondorioztatu daiteke galderaren erantzunetan gero eta konkrezio handiagora jo gazteek gero eta hausnarketa puntu sakonagora jotzen dutela benetako errealitatea azaleratuz. Beraz, Laudioko datuei dagokionez, azpimarragarria da kirol praktika bera inguratzen duten giza eragileekin (entrenatzaile, guraso, kide eta zuzendaritza markoa) sortutako gatazkak izatea kirol uztearen zergatien %21,28an. Bestalde, baita ere adierazgarria da gazteek kirolik ez praktikatzea ikasketek eragindako denbora faltaren ondorioz izatea (%21,28). Baita ere kontuan hartu beharreko beste aspektu batzuk, nagikeria (%12,77) sostengu falta (%10,64), lesioak (%8,51) besteak beste. Genero ikuspegitik ikertu ezkerro, adierazgarria da gizonezkoen kasuan sortzen direla talka handiagoak entrenatzailearekin (%71,43) eta barne mailako faktoreei dagokionez, nagikeria eta gogogabetasun faktoreari dagokionez gizonezkoek datu orokorraren %83,33 osatzen dutela.


Bestalde, beharrezkoa da gizarteak edo ta instituzioen eskuetan aurkitu daitezkeen faktore horiek identifikatzea ondoren irtenbidea topatu ahal izateko. Hau da, kirolarienak soilik ez diren faktore horiek identifikatzea. Hortaz, beheko grafikoan ikusi daitezkeen arrazoi horiek eragile sozializatzaileen arabera banatu beharra dago. Instituzioak, hezkuntza, kirol egitura kudeatzaileak eta guraso eta lagunak izango lirateke. Datuei dagokionez, kirol uzte arrazoiaren %68 batean eragile hauen eskuetan aurkitzen da horien eraldatzea gazteen kirol praktikaren uzte tasean eragiteko.



*Irudia 17* Laudioko gazteak kirola uztera bideratu dituen zergatiak genero ikuspegitik

Aurretik kirolariak izandako Laudioko gazte horiei dagokionez, interesgarria da aztertzea zeintzuk diren gazteen artean uzte tasa handiena izan duen praktika. Grafikoan ikusi daitezkeen datu orokorrei erreparatu ezker, adierazgarria da, igeriketa dela uzte tasa handiena duen praktika, futbola eta eskupilota jarraitzen diotelarik. Baina, modalitate bakoitzaren datu orokorretik uzte tasa ateratzerako orduan, igeriketa da praktikatzaile uzte ehuneko altuena duen praktika %39,39arekin. Praktika horretatik ondorioztatu daiteke, haurtzaroan ume gehienak apuntatzen direla igeriketara igeri egiten ikasi ahal izateko. Baina behin, igeriketaren oinarri basikoenak barneratuta praktika bera uzten dute. Hortaz, igeriketan izena ematen duten horien erdiak, faktore kulturalen ondorioz ematen du eta ez gustuko duen praktika bat delako.






*irudia 18* Laudioko gazteen artean kirol modalitateen araberako kirol uzte tasa

#### 4) DENBORA LIBREA

Kirola aisialdiaren parte dela argi dago, hala ere, gaur eguneko gazteek beraien denbora libre a egituratzerako orduan, beste hainbat ekintza aurrera eramaten dituzte askotan kirola bera baino maiztasun handiagoarekin. Hortaz, aisialdiaren baitan kirolak berak ze garrantzi duen eta zein beste faktorek parte hartzen duten jakitea beharrezkoa da. Beheko grafikoan ikusi daitekeen moduan, Laudioko gazteak beraien denbora libre nagusiki lagunekin egoteko (%24,14) erabiltzen dute. Hala ere, horrek ez du esan nahi maila altu batean lagunekiko harremana jardura fisiko edo ta kirol praktika baten inguruan gauzatzea. Estatu mailako datuei dagokionez (INJUVE, 2016) gazteek aisialdian kirol praktikari ematen dioten garrantziari dagokionez, 6<sup>o</sup> postuan aurkitzen da. Laudioko gazteentzat 2<sup>o</sup> postuan aurkitzen den bitartean. Hala ere, datuak kaxotxen artean hartu behar dira, galdetegi osoa kirol praktikaren inguruan egin izanak kirol praktikarekiko pertzepzioa edo ta aisialdia osatzen duten beste praktikekiko pertzepzioa eraldatu egiten da. Hala ere, esanguratsua da, Laudioko gazteek % 15,78 batean beraien aisialdiaren parte kirola hautatu izana.

## DENBORA LIBREAREN ERABILERA



*irudia 19* Laudioko gazteek denbora librearen zertan inbertitzen duten

## 6. ONDORIOAK

Behin ikerketaren emaitzak modu objektibo batean ikertuak izan direla, beharrezkoa datu horien ondorio nagusienak laburbiltzea eta horien ingurua hausnartzea bukaeran alternatiba edo lan lerro desberdinak definitu ahal izateko.

### 1) KIROL IKUSKERA

Hortaz, lehendabizi Laudioko gazteek kirolarekiko duten pertzepzio edo ikuskerari dagokionez. Garbi ikusten da gaur egun gizarteratutako kirol modernoarekiko ikuskeratik ez dela asko aldentzen. Hau da, gizartean gizarteratutako kirol ikuskera positibista bera birproduzitzen dela Laudioko gazteen artean. Hala ere, baieztapen gehienetan jasotako emaitzei erreparatu ezker adostasuna ez da guztizkoa izaten zalantzatiak agertzen direlarik baieztapen gehienen aurrean, osasun iturria eta lagunak egiteko tresna egokia denaren baieztapenetan kenduta non gazteen gehiengo bat guztiz ados agertu den.

Kirol ikuskeraren baitan jasotako emaitzak zuzenki lotuta agertzen dira kirolaren alde positiboak eta negatiboekin. Adostasun handiena izan duten baieztapen horiek izan baitira kirolaren faktore positibo nagusienak. Lagunekin egoteko aukera eta forma fisiko on bat izateko aukera ematen duela, alegia.

Ikuskera positibo eta negatiboei dagokionez, azpimarragarria da lehiak gazteen artean duen irakurketa bikoitza. Alderdi positiboei dagokionez, laugarren hautatua den bitartean, negatiboei dagokionez, hautatuena da bestetik alde handiarekin. Hala ere, datu negatiboei dagokionez emaitzak kaxkak artean hartu behar dira hautaketa ukera "borrokak eta lehia" delako. Hala ere adierazgarria da, kirol ikuskeraren sozializazioan barne logikaren eragile batek izan dezakeen pertzepzio polarizatua. Hala ere, aztertu beharko litzateke, lehia modu positiboan hautatu duten gazte horien ezaugarri fisikoak zeintzuk diren. Hots, gaur eguneko kirol modeloaren baitan ahalmen fisikoari dagokionez, eraikitzen diren sailkapen sozial horretan zein postutan aurkitzen diren. Bestalde, adierazgarria da, negatiboki azpimarratzen diren faktoreak nagusiki kirolaren barne mailan oinarritu eta kanpo egituratze sozialaren ondorioz egikaritzen direla. Hots, borrokak, tentsioa edo ta ergelkeria bezalako faktoreak, praktikaren barne

logikan dute oinarri (lehia, arauen betetzea...) baina kirolaren faktore sozialen ondorioz plazaratzen dira honelako sentimenduak.

Laudioko gazteak kirolarekiko duten loturaz mintzi garenean aspektu adierazgarrienak genero prisma batetik azaleratzen dira. Deigarria da, emakumezkoen kasuan kirol praktikatzaile gutxiago izan da eta ezarpen soziala txikiagoa duten honetan kirol bakarra praktikatuko luketela. Baina datuen erreparatu ezker, argi ikusi daiteke kirol bakarra praktikatzen dutenak gizonezkoak direla nagusiki eta bi kirol edo ta hainbat kirol praktikatzen duten horien artean ez dagoela aldea generoari dagokionez. Hortaz, ondorioztatu dezakegu, praktikari dagokionez ere bir produzitzen direla genero estereotipoak. Hots, gizonezkoen kirol praktika errendimendura gehiago bideratua dagoen heinean, espezializazio prozesua areagotzen da, beraien kirol bizitza praktika konkretu batera bideratzen dutelarik. Emakumezkoak aldiz, historikoki beraien praktikak izaera produktibotik at egon izanak eta gizarteratutako kirol ikuskera femeninoa kontuan hartuta ez dute hainbesteko lotura izan errendimendu printzipioarekin. Horrek kirol anitzagoak egiteko aukera ematen dielarik.

## 2) KIROL PRAKTIKATZAILEAK

Kirol praktikatzaileen kasuan, kirola praktikatzearen faktore nagusi modura, praktika beraren plazerrean oinarrituriko zergatiak atera dira nagusiki. Bigarren aukera moduan aurretik kirolaren aspektu positiboetan atera den bezala, lagunekin egoteko aukera ta osasun egoki bat izateko aukera adierazi dituzte bigarrenez. Beti ere, kontuan hartu behar da gazteek praktiken gustuko izatearen inguruko duten pertzepzioak oso bideratuta daudela gizarte eredutik eta ezarria dagoen sistemari. Beraz datuak aztertzerako orduan perspektiba batetik ikuskatzea beharrezkoa da eragile sozializatzaileek garrantzi handia dutelako kirol azturetan eta gehin bat gazteen artean.

Hala ere deigarria da, praktikak plazer hutsa gatik gauzatzea, baina datuak kirol praktiken garaiaren arabera aztertzen baldin baditugu gazte gehienak kurtsoan zehar aurrera eramaten dituzte kirol praktikak nagusiki. Normalean denbora libre gutxien duten garaia delarik. Beraz, ondorioztatu dezakegu gazteen kirol praktikaren zergatien

pertzepzioari dagokionez beste faktore batzuk adierazten dutena baino pisu gehiago dutela, errealitatek ihes egiteko adibidez.

Kontuan hartu beharreko beste faktore garrantzitsu bat kirola praktikatzen duten gazte horien artean praktika horiek duten egitura litzateke. Datuei erreparatu ezkeror argi dago, gaur eguneko kirol modeloan asoziazionismoak duen garrantzia azpimarragarria da. Gazteek aurrera eramaten dituzten praktikak modu antolatuan gauzatzeak, gazteen arteko elkar harremantzea guztiz baldintzatu egiten ditu. Gainera kontuan izan da izaera instituzionalaren baitan aurrera eramaten diren praktikak nagusiki sailkapen edo lehia printzipioaren baitan antolatzen dira. Bertan, gizarteratutako botere harremanak erreproduzitzen direlarik. Ahalmen konkretu batzuen jabe diren eta ez direnen artean edo ta irabazlearen eta galtzailearen artean bereiztuz. Gainera argi geratzen da, azken urteetan modelo integratzaileago baten alde egindako apustu guztiek ez dutela eragin positiborik izan praktika ereduari dagokionez. Hots, udaletik bideratuta egon zitezkeen kirol praktika horiek, eskola kirola besteak beste, izara kuantitatibo batetik aztertuta argi dago ez duela garrantzirik kirol egiturari. Klubek eta federazioek aurrera eramaten dituzten lehiaketa ereduak tartaren zati handiena jaten dutelarik.

Aurrekoarekin lotuta, plazaratu egiten den beste kontraesan bat kirol praktika horiek norekin burutzen diren izango litzateke. Orain aipatu bezala, praktikak nagusiki egitura burokratiko baten baitan gauzatzen dira. Baina praktika horiek norekin gauzatzen dituzten galdetzerako orduan gehienek, nagusitasun handiarekin, lagunekin burutzen dituztela adierazten dute. Hortaz ondorioztatu dezakegu, gaztetan lagun sarea osatzerako orduan, denbora librean gauzatzen diren interakzio pertsonalak garrantzi handia dutela.

Laudioko gazteen kirol bizitzari dagokionez, adierazgarria da gehienek 5-7 urte bitartean kirol praktikari hasiera ematea, nagusiki kirol klub batetan ematen dutelarik. Nagusiki, eskola kirola bezalako praktika integratzaileetatik igarotzen ez direlarik, zuzenean errendimendu eredura salto ematen dute. Praktika horiek, eredu globalizatuari jarraiki, kirol hegemonikoetan gauzatzen dituzte. Espazio eta kulturarekiko bereizketa espezifiko batzuk izan arren, talde kirol hegemonikoen erreprodukzioa gauzatzen da Laudioko gazteen kirol praktiketan. Hala ere, adierazgarria da mendi ibiltaritza eta alpinismoa bezalako praktika bat gazteen artean

bigarren praktika izatea. Baina, kontuan hartu beharko genuke praktika horren maiztasuna zenbatekoa den, gizartean benetan duen eragina identifikatu ahal izateko. Bere barne logikari erreparatu ezker, ezarrita dauden balore guztiekin apurtzen duelako. Beti ere, barne logikari dagokionez, bere inguruan, beste praktiketara bezala, balore produktiboak birproduzitzen dira.

Mendi ibiltaritza kenduta, praktika nagusienak lehiaketa printzipioan oinarritzen dira, dantza konkretu batzuetan ere ematen delarik. Hala ere, eredu segregatzaile honen aurrean gazte gehienek adierazten dute, ez dutela lehia beharrezkoa kirol praktika konkretu horiek aurrera eramateko. Hau da, lehiaketa desagertuko balitz kirol praktika horrekin aurrera jarraituko luketela. Orduan galdera da zerk garamatzen gazteek beharrezkotzat hartzen ez duten sailkatzeko modelo segregatzaile hori erabiltzera. Kirol instituzioen papera, kirol merkatuak beharrezkoak dituen txapeldunak produzitzea da, kalitatean eta kantitatean. Beraz, beharrezkoa da hautaketa prozesu goiztiarrak martxan jartzea.

### 3) KIROLA PRAKTIKATZEN EZ DUTEN GAZTEAK

Kirola praktikatzeko ez duten gazteei dagokionez, ondorio nagusienak plazaratzeko beharrezkoa praktikatzaile ohien eta inoiz ez praktikatu izan duten gazteen artean.

Lehendabizi, esan beharra dago, giza talde hau pertsona sedentariotzat hartu behar direla. Horrek osasunean izan dezakeen eraginarekin. Gazte talde honek kirol praktikak ez gauzatzea nagusiki, barne mailako faktoreen ondorio dela esan genezake. Hala ere, barne mailako faktoreak izateak ez du kentzen gizartearen esku hartzea handitu beharko zenik gazte hauek berriz ere kirol mundura erakarri ahal izateko. Gaur egun ezarriak dauden kirol baloreak estandarte hartuta, gazte asko baztertuak ikusten dira kirol praktikatik. Alde batetik, ereduarekin bat egiten ez dutelako eta bestetik, nahiz eta ereduarekin bat egin aurrera eramaten den "hautaketa naturalaren" ondorioz ez dute beraien tokia topatzen kirol munduan.

Aurrekoaren adibidea kirola uztearen zergatietatik eratorriak izan daitekeela uste dut. Kasu gehienetan barne faktoreen ondoriozko erabakia dela ondorioztatzen dugu datuak esku artean izandakoan. Hala ere, azpimarragarria da kirola inguratzen

duten eragileek izandako garrantzia edo izan dezaketen esku hartzea mahai gaineratzea. Zuzendari, entrenatzaile edo ta kiderekin izandako haserrealdiak, sostengu edo estimulu falta, hezkuntzaren exigentzia edo ta denbora falta gizarte moduan esku hartu daitezkeen faktoreak dira, kirol praktika egoki eta ugariago bat bultzatu ahal izateko.

Kirol praktikaren hasiera eta uztearen inguruko datuak bateratuak aztertu ezker ondorioztatu dezakegu genero prismatic emakumezkoek gizonezkoek baino kirol bizitza motzagoa dutela. Hau da, orokorrean beranduago hasi egiten direlako kirol praktikarekin eta modu berdinean lehenago bukatzen dute.

#### 4) DENBORA LIBREA

Denbora libreari dagokionez, marko teorikoan azaldu bezala gizartearen eboluzioaren baitan denbora librearen egituraren eta erabileraren ematen diren aldaketak oso nabariak direla. Gaur egun aurrera eramaten diren praktika gehienak (txateatu, bideo jokoetara jokatu,...) orain dela ez hainbeste urte pentsa ezinak ziren.

Deigarria da ere, kirola aisialdi praktiketan bigarren postu nagusia okupatzea, beti ere kontuan izanda lagunekin aurrera eraman daitezkeen praktika bat dela. Hala ere datu horiek kaxotxen artean hartu beharko genituzke galdetegi osatu duten gazteen pertzepzioa aldatua izan delako, kirolaren inguruko galdetegi konkretu bat osatu dutelako.

## 7. PROPOSAMENA

Etorkizun batean aurrera eraman daitezkeen lan lerro edo eragite esparru desberdinak plazaratuko ditut jarraian. Hala ere, lehendabizi beharrezkoa da azpimarratzea plazaratuko ditudan ideia desberdin hauek soilik aurrera eraman daitezkeen eragite esparru partzialei erantzuten dietela, kirol ereduak eraldatu ahal izateko beharrezkoa baita gizarte bera, edo behintzat, harremantzeko ditugun mekanismoak iraultzea.

Horretaz parte, gaur eguneko gizarte ereduari aurrera eraman daitezkeen aldaketa ezberdinak konkretuki, Laudioko egoeran oinarriturik plazaratuko ditut. Herriak dituen ezaugarrien eta aukerak kontuan izanik.

Aldaketa gehienak, edo behintzat gaur egun lorgarriak diren aldaketa horiek, praktikazailerak diren eta izan daitezkeen subjektu konkretu horiei zuzenduta aurkitzen dira. Alde batetik, beharrezkoa ikusten dut kirola praktikatzeko duten gazte horiek praktika heterogeneoagoak egitera bultzatzea, horretara zuzendutako kanpaina eta publizitate mekanismo desberdinak baliaturik. Gaur egun gaztetatik teknifikatutako praktika horien aurrean modelo integratzaileagoak bultzatuz. Honelako mekanismoak baliaturik, gaur egun kirola utzi duten gazte horien zati handi bat berriro ere kirol praktika burutzerara bueltatuko lirateke, eta kirola praktikatu ez duten gazte horientzat ez litzateke eredu hain arrotza izango.

Hortaz, beharrezkoak dira kirol praktika kooperatiboak bultzatzea bai instituzioetatik zein herritarrek sortutako alternatibetatik. Azken finean, planteatzen ditudan aldaketak herri mailara mugatzen diren honetan ezer gutxi daukagu eragiteko praktika hegemoniko horien ente burokratikoetan. Beraz, paraleloki kirol alternatiba berri bat sortzeko aukera ematen duten mekanismoak martxan jarri behar dira, kirola denontzat prisma pean. Mekanismo horiek udalaren eskumenetatik edo herriko eragile desberdinetatik planteatutako praktika konkretuen bidez aurrera eraman daiteke. Praktika horiek ez dira soilik motorrak izan behar baizik eta formakuntzari zuzendutakoak ere izan daitezkeen kirola inguratzen duten eragile desberdinetan eskua sartu eta gazteekin sortzen diren liskarrak kudeatzeko besteak beste.



Ereduak, gaur eguneko kirol sistema modernoak uzten dituen hutsuneak betearaziz hasi beharko luke bere praktika. Hots, udari begira dauden kirol eskaintza hutsune horiei zuzendutako eskaintza konketuak sortuz adibidez.

## 8. LANAREN MUGAK

Ikerketa honek izan ditzakeen mugei dagokionez, nahiago izan dut bukaerarako ustea, irakurlearen gain izan ditzakeen eragina mugatu eta modu objektiboenean analizatu ahal izateko.

Lana izan ditzakeen muga nagusiei dagokionez, lagina beraren gauzatzeari lotuta egon daitezke. Kontuan izanda galdetegi guztian Laudio Ikastolan aurrera eramán izan direla, hortaz Laudioko herriaren espektro konketu bati zuzendu zaizkio galdetegiak. Hots, orokorrean maila sozioekonomiko ertaina duten familiak, bertakoak eta eredu kultural konketu bati lotutako gazteak izan dira nagusiki. Beraz, esan genezake lagin nahiko homogeneo baten aurrean aurkitzen garela, eta hortaz, pertsona etorkinengana edo ta maila sozioekonomiko baxuagoetara ez garela heldu. Horren adibide da, etorkinekiko izandako datuen faltagatik analizatzerako orduan faktore bezala ezin erabiltzeak.

Bestalde, lehengo aldia izanda honelako ikerketa bat herrian bertan aurrera eramaten dela, ezin ditzakegu aurreko urteetako datuekin konparatu, estatu mailako datuekin ez bada.

Hala ere, ikerketa hau hasierako mugarriztat ulertu behar dugu, hurrengo urteetan aurrera eramango diren ikerketa horien hazia izango balitz bezala.

## 9. ERANSKINAK

### GALDETEGIA

#### **KIROL AZTURAK LAUDIOKO GAZTEEN ARTEAN**

Honako galdetegiaren bidez Laudioko gazteek dituzten kirol eta aisialdia ohituren inguruko ikerketa bat aurrera eraman nahi da, horretarako zure parte hartzea eskertzen dizugu. Beraz, beharrezkoa da galderak ahalik eta hobekien erantzutea, horretarako ondo irakurtzea gomendatzen delarik.

Hurrengo atalera igaro aurretik ikusi ea galdera guztiak erantzun dituzun, galdera batzuetan ematen duzun erantzunaren arabera galdetegiak berak atal bat edo beste betearaziko dizularik.

Mila esker zure parte hartzeagatik!

1. Generoa:

- Emakumezkoa
- Gizonezkoa
- Beste bat:

2. Zenbat urte bete zenituen azkenengo urtebetetzean?

- 11
- 12
- 13
- 14
- 15
- 16
- 17
- Beste bat:

3. Zein ikastetxetan ikasten duzu?

- Audio ikastola
- Audioko Institutua
- La Milagrosa Ikastetxea
- Audioko Lanbide Eskola
- Beste bat:

4. Gaur egun zein da ikasten zauden maila?

- DBH.1
- DBH.2
- DBH.3
- DBH:4
- BATXI.1
- BATXI.2
- Erdi mailako zikloa

5. Zure jaioterria

- Audio
- Aiaraldea
- Euskal Herria
- Espainia
- Beste bat:

6. Gurasoen jaioterria (Ezberdina izatekotan biak aukeratu behar dira)

- Audio
- Aiaraldea
- Euskal Herria
- Espainia
- Beste bat:

7. Ikusi dezakegu kirola baloratzerako orduan ikuskera desberdinak egon daitezkeela. Jarraian agertzen diren baieztapenak kirolarekiko ikuskera desberdinak laburtzen dituzte. Mesedez, esaidazu baieztapen horiekin guztiz ados, nahiko ados, apur bat desados edo guztiz desados zauden.

	GUZTIZ ADOS	NAHIKO ADOS	NAHIKO DESADOS	GUZTIZ DESADOS	EZ DAKIT/ EZ DUT ERANTZUT EN
Kirola egiteak forman egoteko aukera ematen dizu, osasunaren iturri nagusienetako bat delarik.					
Kirola agresibitatea eta umore txarra kanporatzeko tresna egokia da.					
Kirola lagunak egiteko eta beste pertsonekin elkar harremantzeko tresna egokia da.					
Bizitzak jartzen dituen trabak gainditzeko lagungarria da.					
Pertsonak hezitu eta disziplintatzeko.					
Kirola egitea bizitza intentsitate handiagoarekin bizitzeko aukera ematen du, bizitzaren monotoniekin apurtzen dugularik.					
Kirola ikasteko ahalmena handitzen du, gure ikasketetarako prestatzeko laguntzen duelarik.					

8. Kirol praktikatzailea izanda edo ez izanda ere, zer da kirolek gehien gustatzen zaizuna? (Bi erantzun gehienez)

- Forma fisiko on bat izateko aukerak ematen ditu
- Kirola bera inguratzen duen entretenimendu eta dibertsioa
- Lagunekin egoteko aukera ematen du
- Naturarekin kontaktuan egoteko aukera ematen digu
- Erlaxatzen laguntzen digu
- Lehiaketak
- Ikuskizun desberdinak kontsumitzeko aukera ematen digu
- Pertsonak hezitzeko aukera bat da
- Ezer ez
- Ez dakit/ Ez dut erantzuten
- Beste bat:

9. Zer da kirolek gutxien gustatzen zaizuna? (Bi erantzun gehienez)

- Borrokak eta lehiakortasuna
- Kirol profesionala eta dirua
- Tentsioa
- Kirolari garailearen goratzea
- Publizitatea
- Kirola inguratzen duen ergelkeria
- Oso neketsua da
- Ez dakit/ ez dut erantzuten
- Beste bat:

10. Eskola orduetaz aparte gaur egun kirolen bat praktikatzen duzu?

- Kirol bakarra praktikatzen dut
- Bi kirol desberdin praktikatzen ditut
- Hainbat kirol praktikatzen ditut
- Ez dut kirolik praktikatzen, baina aurretik praktikatu izan dut
- Ez dut inoiz kirolik praktikatu
- Ez dakit / ez dut erantzuten

## KIROL PRAKTIKATZAILEAK

Honako atal hau kirol antolatua zein ez antolatua PRAKTIKATZEN DUTEN GAZTEEI zuzenduta dago

11. Kirola praktikatu ezkerro, zeintzuk dira praktikatzeko dituzun arrazoi nagusienak? (Gehienez bi hautatu daitezke)

- Denbora pasatzeko edo dibertsioagatik
- Lagunekin elkartzeko
- Jarduera fisikoa egiteko
- Lagunekin elkartzeko
- Jarduera fisikoa egiteko
- Kirola gustuko dudalako
- Fisikoki ondo ikusteko
- Egunerokotasunetik ihes egiteko
- Osasuna mantendu edo hobetzeko
- Ez dakit/ ez dut erantzuten
- Beste bat:

12. Orokorrean, zein maiztasunarekin praktikatzen duzu kirola?

- Astero hirutan edo gehiagotan
- Astero birritan
- Astero behin
- Astean behin baino gutxiago
- Oporretan bakarrik
- Ez dakit/ ez dut erantzuten

13. Urteko zein garaietan praktikatzen duzu kirol gehien?

- Denetan berdin
- Udan gehiago

- Neguan gehiago
- Ikasturtean zehar
- Ez dakit/ ez dut erantuten

14. Normalean nola egiten duzu kirola?

- Nire kabuz
- Ikastetxean burutzen diren kirol ekintzetan
- Kirol klub, federazio edo erakunde batek antolatutako kirol ekintzetan
- Ez dakit/ ez dut erantzuten
- Beste bat:

15. Zenbat urte zenituen kirola praktikatzen hasi zinenean? (Zenbakiz idatzi)

- .....

16. Normalean norekin praktikatzen duzu kirola?

- Gehienetan bakarrik
- Lagun talde batekin
- Falimiako kideren batekin
- Batzutan bakarrik, beste batzutan taldeka
- Ez dakit/ ez dut erantzuten
- Beste bat:

17. Konkretuki, zein da praktikatzen duzun edo pratikatzen dituzun kirolak?  
(adierazi dagozkion guztiak)

- Futbola
- Areto futbola
- Saskibaloia
- Igeriketa
- Eskubaloia
- Atletismo

- Esku pilota
- Tenisa
- Txirrindularitza
- Mendi-ibiltaritza, alpinismoa
- Eskalada
- Eskia eta neguko beste jarduera batzuk
- Beste bat:

18. Kirola egitekotan lehiaketaren batean parte hartzen duzu?

- Liga eta kirol lehiaketa nazionaletan parte hartzen dut
- Probintzia mailako edo herri mailako lehiaketetan parte hartzen dut
- Beste eskola batzuen kontra lehiatzen naiz
- Nire ikastetxeko beste kurtso batzuen kontra lehiatzen naiz
- Lagunekin lehiatzen naiz, ondo pasatzeko
- Kirola egiten dut, baina ez naiz lehiatzen
- Ez dakit/ z dut erantzuten
- Beste bat:

19. Lehiaketetan parte hartzeari utzi ezkeru uste duzu kirola praktikatzen jarraituko zenukeela?

- Bai, seguru asko
- Agian bai
- Agian ez
- Ez, seguru asko
- Ez dakit/ ez dut erantzuten

## AURRETIK KIROL PRAKTIKATZAILEAK IZANDAKOAK

Honako atal hau AURRETIK KIROLA PRAKTIKATZEN ZUTEN, baina gaur egun praktikatzeari utzi dioten gazteei zuzenduta dago.



20. Zein zen edo zeintzuk ziren aurretik praktikatzen zenituen kirolak?

- Futbola
- Areto futbola
- Saskibaloia
- Igeriketa
- Eskubaloia
- Atletismo
- Esku pilota
- Tenisa
- Txirrindularitza
- Mendi-ibiltaritza, alpinismoa
- Eskalada
- Eskia eta neguko beste jarduera batzuk
- Beste bat:

21. Zein adinarekin utzi zenion kirola praktikatzeari? (Zenbakiz idatzi)

- .....

22. Kirola praktikatzera bueltatuko zarela uste duzu?

- Bai, seguru asko
- Agian bai
- Gaur egun ez dakit bueltatuko naizen
- Agian ez
- Ez, seguru asko
- Ez dakit/ ez dut erantzuten

23. Hemen aurrean agertzen diren arrazoietatik, zure kasuan zeintzuk izan dira kirol praktika usteko bi arrazoi nagusienak?

- Kirol instalakuntza egokien falta
- Kirol instalakuntzak hurbil ez izatea

- Lesioagatik
- Osasunagatik
- Entrenatzailearekin haserretzeagatik
- Zuzendaritzarekin haserretzeagatik
- Kideekin haserretzeagatik
- Gurasoek ez zidatelako uzten
- Ikasketek gehiegi exigitzen zidatelako
- Mutil edo neska lagunak gustuko ez zuelako
- Partikularretatik oso berandu ateratzen nintzelako
- Gogogabetasuna eta nagikeriagatik
- Ez diodalako erabilgarritasunik ikusten
- Ez diodalako onurak ikusten
- Estimulu edo sostengu falta
- Diru faltagatik
- Ez dakit/ ez dut erantzuten
- Beste bat:

## KIROL EZ PRAKTIKATZAILEAK

Honako atal hau INOIZ EZ kirola praktikatu duten gazteei zuzenduta dago.

24. Aurretik inoiz ez kirola praktikatu izan ezkerro, zeintzuk dira dituzun arrazoi nagusienak? (Gehienez bi hautatu daitezke)

- Ez dut gustuko
- Osasunagatik
- Ez dizkiot onurak ikusten
- Ez dizkiot erabilerarik ikusten
- Ez dut denborarik
- Ez ditut kirol instalakuntzarik hurbil
- Egokiak diren kirol instalakuntza falta
- Eskolatik oso nekatuta ateratzen naizelako
- Nagitasuna edo gogo faltagatik
- Beste bat:

## DENBORA LIBREA

Galdetegia osatzen duten gazte orok bete behar du.

25. Orokorrean, zertan inbertitzen duzu denbora libre? (gehienez, bi aukeratu)

- Familiarekin egon
- Zinemara, antzerki, kontzertuetara joaten
- Kirola egiten
- Kirol ikuskizunak ikusten
- Bideo jokoetara jolasten
- Lagunekin txateatzen
- Lagunekin egoteko
- Ezer berezirik egiteko
- Liburuak, aldizkariak irakurtzeko
- Txango desberdinak egiteko
- Mutil edo neska lagunarekin ateratzeko
- Musika entzuteko
- Musika instrumentu bat jotzeko
- Kultur ekintzetan parte hartzeko
- Ez dakit/ ez dut erantzuten
- Beste bat:

26. Orokorrean zein maiztasunarekin praktikatzen dituzu?

- Egunero edo ia egunero
- Astero egunen baten, astean zehar normalean
- Asteko egunen baten, asteburutan normalean
- Hilean behin edo bitan
- Maiztasun gutxiagorekin

## 10. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Hernández, N. F., eta Carballo, C. G. (2002). Acerca del concepto de deporte: Alcances de su (s) significado (s). *Educación Física y Ciencia*, 6, 87.

Patriksson, G. (1996). Síntesis de las investigaciones actuales: segunda parte. *Multiple Authors: La función del deporte en la sociedad: salud, socialización y economía*, 123-149.

Bourdieu, P. (1997). *Capital cultural, escuela y espacio social*. Siglo xxi

Meinel, K., eta Schnabel, G. (2004). *Teoría del movimiento: Motricidad deportiva*. Editorial Stadium SRL.

García Ferrando, M. (2006). Posmodernidad y deporte: Entre la individualización y la masificación. Encuesta sobre hábitos deportivos de los españoles 2005. *Consejo Superior de Deportes-Centro de Investigaciones Sociológicas*. Madrid.

Fernández, I. C., eta Solá, I. B. (2001). Dimensiones de los motivos de práctica deportiva de los adolescentes valencianos escolarizados. *Apunts. Educación física y deportes*, 1(63), 22-29.

Ferrando, M. G. (2006). Veinticinco años de análisis del comportamiento deportivo de la población española (1980-2005). *Revista internacional de sociología*, 64(44), 15-38.

de Deportes, C. S. (2011). Los hábitos deportivos de la población escolar en España. *Recuperado de [www. csd. gov. es/csd/estaticos/dep-escolar/encuesta-de-habitos-deportivos-poblacion-escolar-en-espana. pdf](http://www.csd.gob.es/csd/estaticos/dep-escolar/encuesta-de-habitos-deportivos-poblacion-escolar-en-espana.pdf)*.

de la Juventud, O. (2012). Informe Juventud en España. *Madrid: INJUVE Disponible en: [http://www. injuve. es/sites/default/files/20, 13, 26](http://www.injuve.es/sites/default/files/20_13_26)*.

Ferrando, M. G., Barata, N. P., Otero, F. L., Goig, R. L., & Soler, A. V. (2017). *Sociología del deporte*. Alianza Editorial.

Casal, J., Garcia Gracia, M., Merino Pareja, R., eta Miguel Quesada, F. J. (2006). Aportaciones teóricas y metodológicas a la sociología de la juventud desde la perspectiva de la transición. *Papers: Revista de sociología*, (79), 021-48.

Casal, J., Pareja, R. M., eta García, M. (2011). Pasado y futuro del estudio sobre la transición de los jóvenes. *Papers: revista de sociología*, 96(4), 1139-1162.

Fraile, A., & de Diego, R. (2006). Motivaciones de los escolares europeos para la práctica del deporte escolar. Un estudio realizado en España, Italia, Francia y Portugal. *Revista internacional de sociología*, 64(44), 85-109.

Martínez del Castillo, J., Rodríguez, M. L., Jiménez-Beatty, J. E., eta Graupera, J. L. (2005). Influencia de la educación física escolar en la práctica de actividad física en la vejez. *Motricidad. European Journal of Human Movement*, 13.

Cuenca Cabeza, M. (2011). Aisiaren pedagogia.

Hargreaves, J. (1993). Promesa y problemas en el ocio y los deportes femeninos. *Materiales de sociología del deporte*, 109-132.

García-Ferrando, M., eta Llopis, R. (2011). Ideal democrático y bienestar personal. Encuesta sobre los hábitos deportivos en España 2010. Madrid: Consejo Superior de Deportes, Centro de Investigaciones Sociológicas.

Alfaro, É. (2008). Mujer joven y deporte. *Revista de estudios de juventud*, (83), 119-141.

Deloitte, S. L. (2009). Encuesta de hábitos deportivos en la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV).

López-Walle, J., Balaguer, I., Castillo, I., eta Tristán, J. (2011). Clima motivacional percibido, motivación autodeterminada y autoestima en jóvenes deportistas mexicanos. *Revista de Psicología del Deporte*, 20(1).

Brohm, J. M. (1982). *Sociología política del deporte* (No. 04; HM33, B7.).

Bourdieu, P. (1997). *Capital cultural, escuela y espacio social*. Siglo xxi.